

Elkarrizketa  
politikoak

DURANGO



## "Trenbidea bera berreskuratzeko akordioa lantzen gabilta. Urte amaierarako prest izatea espero dugu"

**Durango** • Mireia Elkoroirik jaiak Durangoko alkate legez bizi dituen lehenengo urtea da. Sanfaustoen lehenengo asteburuaren oso balorazio positiboa egin du, eta orain bigarren asteburura begira daude. Durangoren erronkei eta herritarren kezkei buruzko galderari erantzun die. • 2-3

## "Palestina lurralde okupatua dela onartu arren, askok gure lurretan egoteko eskubidea aitortzen diote Israeli"



**Zornotza** • Mohammad Farajallah palestinarra berderatzi urte daramatza Zornotzan bizitzen. Kezkaz eta minez begiratzen dio bere jaioterrian gertatzen dabilenari. Palestina herrialde okupatua dela gogoratu eta gatazkaren sorburua politikoa dela adierazi du. Egunotan Durangaldeko herritar ugari irten du kalera palestinarrei elkartzasuna adierazteko. • 12-13

AINHOA IRAOLA



## Euskararen kontrako erasoei aurre egiteko deia

**Euskara** • Euskalgintzaren Kontseiluak manifestaziora deitu du azaroaren 4rako Bilbon, 'Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat' lelopean. Durangaldeko euskalgintzako hainbat eragile batu da deialdira. • 4



## Jaietako bigarren asteburua parrandarako gogoia asetzeko

**Jaiak** • Joan zen asteburuko ospakizunak nahikoa ez, eta durangarrak jaietako bigarren asteburuan sartuko dira barikuan. Tortilla txapelketak, Mozorro Eguna eta Huntzaren kontzertua nabarmentzen dira egitarauan. • 4





**Mireia Elkoroiribe**  
**Zenikaonandia**

Durangoko alkatea

ABADIÑO | 1975

AINHOA IRAOLA

## “Gogoeta egin gura dugu Plateruenarentzat eredurik egokiena zein den erabakitze”

Mireia Elkoroiribek jaietako lehenengo asteburu luzea bizi izan du alkate karguan. Balorazio positiboa egin du

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

**Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatea bete-betean sartuta dago Sanfausto jaietan. Lehenengo asteburuaren balorazio positiboa eginda, bigarrenari ekingo diote. Durangarren erronken eta kezken inguruko galderei erantzun die Elkoroiribek.**

**Zelan alkate karguan?**

Ilusio eta gogo handiagaz, oso pozik aukera hau edukitzearren. Lau urtean lanean ibili gara alkatetza berreskuratzeko. Orain, lortu dugu, eta aurrera goaz.

**Jaietan bete-betean sartuta zaudete. Lehenengo asteburu luzearen zein balorazio egiten duzu?**

Oso balorazio positiboa. Parte hartze handia izan dugu ekitaldi guztietan. Eguraldiak lagundu egin du eta giro onean bizi izan ditugu

jaietako lehenengo egunak. Egon dira gertaera batzuk. Zezenak Diran, esate baterako, istripua gertatu zen, eta goitibeheren jaitserian ere istripu bat izan zen. Lapurreta batzuk ere gertatu dira, baina orokorrean oso balorazio positiboa egiten dugu parte hartzearen, segurtasunaren eta zibismoaren aldetik.

**Sokamuturrean errekarra jausi zen pertsonaren osasun egoeraren inguruko berririk baduzu?**

Ondo errekuaritzen dabil. Hiru orno apurtu zituen, baina ondo dago, zorionez.

**Txosnaguneak gogor kritikatu du udalak ezarritako ordutegia, kartelak ipintzen ez uztea eta baita soinu-neurgailuen sistema ere.**

Ipini den ordutegia txosnaguneari araudiaren arabera dagokiona da.

Hau da, ostalaritzako bigarren taldeari dagokiona. Horixe da guk ezarri duguna, Goienkaleko taberna guztiek daukaten legez, 04:30era arte. Jaiak denok disfrutatze eta denok aprobetxatzeko izan behar dira. Kasu honetan, guk gure ostalaritza dugu, urte osoan zehar euren zergak ordaintzen dituztenak, eta hor daude 3. eta 4. taldekoak beste ordutegi zabalago bategaz. Beste urte batzuetan ere horrela izan da. Azkenengoan ez, baina aurreko urteetan ere tabernekin alderatzen zen. Uste dugu denok disfrutatze aukera egon dela. Soinu-neurgailuei dagokienez, legez muga batzuk bermatu behar dira soinu aldetik, eta horiek errespetatzea baino ez dugu eskatu. Kartelei dagokienez, txosna inguruan kartel mordoa dago. Ez dakit zein den kexa.

**Durangoko proiektu nagusienetarikoa bat PERIa da, trenbide zaharreko eremuari dagokiona. Zein egoeratan dago?**

Eremu hori jaietan erabili dugu lehenengoz, eta azpimarratzekoa da. Barrakak eta zezen plaza bertan ipintzea oso berri ona da. Harrera ona izan du eta lurzoru hori erabiltzen hastea pozgarria da. Orain, trenbidea bera errekuaritzeko akordioa lantzen gabilta. Urte amaierarako prest izatea espero dugu, trazatu hori berreskuratzeko.

**Zertan datza proiektua?**

Trenbideko burdinak kenduta

daude neurri handi batean, eta bide hori urbanizatzea geratzen da orain. Trenbidearen trazatuan bidegorri bat egingo dugu, oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko. Ibilbide horregaz herri osoa lotzea da helburua. Faseka egingo dugu. Trazatu hori desafektatu egin da, trenbidearen erabileragaz lotuta zegoelako. Akordioa urte amaieran lotzea gura genuke, eta urte hasieran obrak hastea.

**Eta tren geltoki zaharreko eremuan zein proiektu bultzatzen duzue?**

Akordioa negoziatzen gabilta, denontzat ona izan dadin. Etxebizitzak berdegune handi bat eta edifizio ekipamentala mantentzea gura genuke. Gaitasun Handiko Osasun Zentroa bertara eraman gura genuke. Hori guzti hori ahalbidetzen duen akordioa lortzeko bidean gaude. Horrek tramitazioa beharko du eta denbora eramango du. Gure beharriari erantzuneko dien akordio bat lortzea da garrantzitsua.

**Gobernu taldeak behin betiko alde batera utzi du bost dorreen proiektua?**

Orain lau urtetik esaten gabilta dorre altu horiek eraikitzea baztertua dagoela. Ikusi egin beharko da ea etxebizitza horiek zelan enkajatzen ditugun gure errealtatera ondoan egokitze. Zenbat eraikin izan behar diren, zein altuera izan behar duten... Argi dugu herritarren aldetik eskaera bat izan genuela altuera handiko eraikinak ez egiteko. Geure buruari ipini

diogun muga hamar pisukoa da. Orain, aztertzen gabilta zenbat etxebizitza egokitu behar diren. Aurreko gobernuak landu zuen akordioa aztertzen gabilta. Ahalik eta akordiorik zabalena lortu gura dugu eta, alde horretatik, kontuan dugu aurreko gobernuak zer gura zuen eta zer landu zuen. Ez dugu baztertzen, altuera jaisteaz gainera, etxebizitza kopurua ere apur bat jaitea, edo beste lurzoru batzuetara eramatea. Aukera guztiak aztertzen gabilta Jaurlearitzagaz batera.

**Osasungitzan, zeintzuk gabezia identifikatzen dituzue?**

Alde batetik, lehen mailako arreta arintzea gura genuke. Badakigu ez dela erraza, profesionalen falta dagoelako. Errealitatea zein den jakinda aukerak aztertzen gabilta. Ildo horretatik, bertako osasun zentrotik esaten digute espazio falta dutela hainbat gauza Durangora ekartzeko. Gainera, dioskue eraikin desberdin bi izateak ez duela laguntzen eraginkorrak izateko. Hortik dator Gaitasun Handiko Osasun Zentroa, gaur egungo beharriari erantzuteko eta baita zerbitzu berriak jarri ahal izateko ere; adibidez, mamografiak. Galdakaon egitea lortu dugu orain, baina guk Durangon egitea gura dugu. Kontua da gaur egun ditugun eraikinekin ez dagoela espaziorik mamografiak egiteko, ezta handitu beharko litzatekeen ginekologia zerbitzua emateko ere. Beste beharriari batzuk ere badaude, pediatriaren ordutegia handitzea eta ambulanzia medikalizatua izatea, esate baterako. Horiek ere eskatu ditugu.

**Durangoko Udalak inkesta bat egin du herritarren kezkek ezagutzeko, eta hauetxek dira lehenengo hiru postuetan dauden gaiak: aparkalekua, airearen kalitatea eta etxebizitza. Aparkalekuaren gaiagaz hasiko gara. Zein asmo duzue?**

Gaur egun OTA sistema bat dugu eta Mugikortasun Planaren berrikuspenean aparkalekuaren gaia aztertuko dugu. Parkingak ere baditugu, LESAKoa 24 orduan zabalik orain, TADUKoa ere bai, eta udalarena ez den arren tren geltokiaren ondoan beste bat ere badago, oso prezio merkean. Antso Estegizen goiko partean beste aparkaleku bat egitea aurreikusita dago, Hermanos Oñate eta Juan Itziar artean. Aparkaleku hori oso garrantzitsua izango da Antso Estegizen berrurbanizazioa amaitu ahal izateko. Orain goiko partea berrurbanizatzen gabilta, baina beheko partea egiterakoan aparkalekuak kenduko dira eta goiko parkinga beharko da.

**Airearen kalitatea ere kezka iturri da. Zein pauso emango dituzue?**

Eremu bitan lan egingo dugu. Alde batetik, enpresekin Eusko Jaurla-



ritzagaz elkarlanean, emisioak egokiak izateko eta dena kontrolatuta egoteko. Beste alde batetik, trafikoaren kontua dago, askotan ez garelako konturatzen zein eragin duen airearen kalitatearen inguruan. Zorionez, azken hamarkadetan gauzak asko aldatu dira. Lehen, Goienkaleraino sartzen ziren kotxeak. Jendea denerako mugitzen zen kotxean. Gaur egun jendea oinez mugitzen da herri barruan, geroago eta gehiago. Horixe da gure ildo estrategikoetarikoa, eta bultzatzen jarraituko dugu. Beste proiektu interesgarri bat Durangoko gunerik garrantzitsuenak lotuko dituen minibus elektrikoarena da. Ikerketa bat egin gura dugu, proiektu hori martxan ipintzeko modurik eraginkorrena zein den jakiteko. Osasun zentroak eta egoitzak lotzeko, baina baita Tabira ere, esate baterako. Izan ere, pertsona nagusiak haizea hartzera joan daitezke Tabirara. Ez da zertan medikuarenera joan minibusa hartzeko.

**Etxebizitzaren gaia ere arduetariko bat da. Etxeak egin bai, baina oso garesti.**

Beste lehentasunetariko bat da. Gureak diren 16 etxebizitza alokairuan aterako ditugu San Fauston. Egokitu barik egon dira, eta horretan gabiltza. Bestalde, hainbat etxebizitza garatzeko ditugu,

PERlan esate baterako, babes ofizialekoak eta baita tasatuak ere. Beste lurzoru batzuk ere baditugu; horretarako, Eusko Jaurlaritzagaz hartu-emanen gaude, gazteei edo beste beharizan batzuk dituzten pertsonaei begira.

**“ Bertako osasun zentrotik esaten digute espazio falta dutela hainbat gauza Durangora ekartzeko ”**

**“ Gaitasun Handiko Osasun Zentroa, gaur egungo beharrezko erantzuteko eta baita zerbitzu berriak jarri ahal izateko ere ”**

**Legegintzaldi hasieran zeresan handia eman zuen gaietariko bat alkatearen soldata igoera izan zen. Zein irakurketa egiten duzu horretaz?**

Alderdi politikoa bi aipatuko ditut: EAJ eta EH Bildu. Oso politika ezberdinak ditugu alde horre-

tatik. Beti defendatu izan dugu politikariek ere soldata egokiak izan behar dituztela. Ez dakit jendea konturatzen den alkate baten funtzioa eta lana zeintzuk diren. 24 ordu asteko zazpi egunetan. Soldata handia ala txikia den oso subjektiboa da. Horregaitik, EAJn aspalditik EUDELe markatzen dituen irizpideei jarraitzen diegu. EUDELe soldata batzuk markatzen ditu funtzionariarentzat eta alkateentzat. Udal honetan, esate baterako, alkatearena ez da soldatarik handiena. Durangoren kasuan, EUDELe markatzen duenaren arabera, soldata bat ezarrita dago 20.000 eta 50.000 biztanle arteko herrietarako. Guri hori tokatuko litzaiguke, baina ez dugu hori aukeratu. Maila bat baxuagokoa aukeratu dugu. 20.000 biztanlera arteko herrietako alkateei egokituko litzaiekeen soldata izango litzateke. Horrez gainera, nik lehen kobratzen nuen soldata bera izango litzateke. EH Bilduk ipintzen duen irizpidea da. Norberak dakarren soldata mantentzea da EH Bilduk dioena.

**Euskararen egoeraren inguruan zein interpretazio egiten duzu Durangon?**

Euskararen ezagutza maila asko hazi da eta hor lan handia egin da. Baina erabileran erronka

handia dugu. Eskolaz kanpoko ekintzetan jardun gura dugu hainbat eragileguz batera, bai aisialdian eta baita kirolean ere. Beste erronka bat etorkinen gaia da. Gaia aztertzen gabiltza, euren laguntzeko. Eta beste kontu bat eskubideen urraketa da, gaur egun bizi dugun egoera oso kezkarria delako.

**Aurreko legegintzaldian, udalak bere gain hartu zuen Plateruenaren kudeaketa. Gobernu talde berriak zer asmo dauka proiektu honen inguruan? Uda bueltan programazioak behera egin duela ikusi dugu.**

Hausnarketa fase batean gaude. Sorpresa hartu dugu gobernuan sartu garenean eta ikusi dugunean egoera zein den. Plateruenaren egoera nahikoa kezkarria da, orokorrean; batez ere kudeaketa aldetik. Kudeaketa zuzena egiteko erabakia hartu zen, baina errealitatea da horrek ere bere lizentziak, bere egitura eta bere diru sarrerak behar dituela. Dena egin barik zegoen. Adibidez, eraikin horrek duen lizentzia kafe antzokiarena da. Hau da, ostalaritza da nagusi. Ostalaritzarik barik ezingo litzateke ezer egin. Gainera, baldintzatuta zegoen, Eusko Jaurlaritzako errekerimendu bat zegoelako esaten zuena baldintza guztiak ez zirela betetzen, klimatizazioa ez zegoelako ondo. Lehe-

nengo eta behin, klimatizazioa konpondu behar izan dugu.

**Zelan ikusten duzu Plateruenaren etorkizuna?**

Kultur mahaiagaz berba egin genuen eta egoera zein den azaldu genien. Plateruena azpiegitura garrantzitsua da, eta oso argi dugu euskara eta kultura bultzatu behar dituela. Gogoeta egin gura dugu Plateruenarentzat eredurik egokiena zein den erabakitzeko. Horregaitik, momentu honetan ez dago jarduera askorik, baina mantentzen da aktibitatea, eta eraikina erabilgarri dago gure eragile eta herritarrentzat.

**Correos zaharreko eraikinaren proiektua zein fasetan dago?**

Proiektua egokitzen gabiltza. Egin zen proiektua, gure ustez, ez zetorren bat Durangoren beharrezanekin. Haurrei eta gazteei zuzenduriko eraikin bat izango da. Urtea amaitu aurretik, proiektua aurkeztu eta gero obrekin hasiko gara.

**Eta Urki-hegoaldeko errepedea?**

Obrak ondo doaz. Urki-hegoaldek hainbat onura ekarriko du. Trafikoa herritik aterako du. Gainera, Eguzkitzako zoru industrialak garatu ahal izango ditugu. Durangoko enpresak izatea behar du, diru sarrerak direlako udalarentzat; eta kalitatezko enplegua ere behar du.

# Mallabiko urriko jaiak

## URRIAK 19 eta 20

**17:00-20:00** Erakusketa: Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuak, Kontzejuzarrean  
Antolatzailea: Udala eta Gerediaga

## URRIAK 22, domeka

**12:30** Berbaldia: "Lehenengo lanbide zaharrak gogoan" Kontzejuzarrean.  
Hizlaria: Jesus Eguzkitza 'Eguzki'  
Hizkuntza: Euskaraz  
Antolatzailea: Udala eta Gerediaga

## URRIAK 27, barikua

**16:30** Buruhandiak, eskolatik parkera  
Antolatzailea: Guraso elkarteak  
**17:00** Txondor Herri kirol taldearen erakustaldia parkean  
Antolatzailea: Txondor Herri Kirol taldea  
**18:00-20:00** Etxebarria aita- seme trikitilariak kaleak girotzen  
Antolatzailea: Udala  
**18:30** II. Kickboxing boxeo gaua herriko frontoian  
Sarrera: 15€  
Antolatzailea: Udala  
**18:30** Txupinazoa udaletxeko balkoitik  
**19:00** Elizpeko pilota txapelketako finala  
Laguntzailea: Udala  
**20:30** Hanburgesa pintxoak parkean  
Tiketak: Pintxo bat euro bat  
Antolatzailea: Udala  
**21:30** Aiama eta Akerbeltz taldeak parkean  
Antolatzailea: Udala

## URRIAK 28, zapatua

**9:00** Frontenis maratokia (bikoteka) herriko frontoian  
Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.  
**11:00** Duetlo txikia herri barruko zirkuituan  
Antolatzaileak: Guraso elkarteak eta Udala  
**12:00-15:00** Mallabiko VI. Arda Ferixie probalekuan  
Urdaiazpikoa ebakitzeko ikastaroa  
Gazteentzako gastrotailerrak  
Makillau show cooking  
Paella dastatzea  
Sarrera: 7€  
Antolatzaileak: Udala eta Ardosaltsan  
**16:00-19:00** Txiki-Txef umeentzat parkeko anfiteatroan  
Antolatzailea: Udala  
**18:00** Burrumba txaranga  
Antolatzailea: Udala  
**22:30** Kontzertua parkean: GOZATEGI, MERINA GRIS, HOFE X 4:40, TOC  
Antolatzailea: Udala

## URRIAK 29, domeka

**9:00** Frontenis maratokia (banaka) eskolako frontoian  
Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.  
**11:30-15:00** II. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau  
Antolatzailea: Udala  
**16:30** Katapuntxispun ikuskizuna umeentzat, herriko frontoian. Ondoren, txokolatada  
Antolatzailea: Udala

## 17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean

Sariak:  
1. 120 € eta garaikurra  
2. 100 €  
3. 80 €  
4. 60 €

Izen ematea: 10 € bikoteko  
Antolatzailea: Udala

## URRIAK 30, astelehena (GAU BELTZA)

Amaia Egidazu ipuin kontalaria. 'Ilun eta beltz. Dardarka jarri baietz!' liburutegian  
**17:00** HH 3-4-5  
**18:00** 1. mailatik gora

## URRIAK 31, martitzena (GAU BELTZA)

**17:00** Ginkana, Kontzejuzarrean hasita (1. mailatik gorakoentzat)  
**18:00** Kalabazak hustu; aurpegiak eta kareak margotzea, Kontzejuzarrean. Ondoren, Photocall-a  
**19:00** Iluntasuna piztu...ekitaldia! plazan  
Ondoren, herritik kantu erronda! Eta txorizo pintxoak!  
Amaitzeko, Trikiti poteoa Takittogaz!

## AZAROAK 2, eguaztena (GAU BELTZA)

**19:00** Berbaldia: "Heriotza duina", Kontzejuzarrean  
Anakotz Lasarte eta Iñaki Peña  
Antolatzaileak: Herri Ekimena, Sabibu, Zaparrada, Gazte Alai dantza taldea, Guraso elkarteak, Mendibil abesbatza eta Udala

Antolatzaileak:  
Mallabiko Udala  
Herriko elkarteak





## Durungaldeko euskalgintzako hainbat eragilek bat egin du Kontseiluaren Bilboko mobilizazioagaz

Azaroaren 4rako manifestaziora deitu dute Bilbon. Azken urteetan euskararen alde egin den manifestaziorik jendetsuena izango dela aurreikusi dute deitzaileek



Durungaldeko euskalgintzako eragileak eguaztenez Durangon egindako agerraldian.

### DURANGO • JONE GUENETXEA

Euskalgintzaren Kontseiluak manifestaziora deitu du azaroaren 4rako Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean. Ekinenari bultzada emateko asmoz, Durungaldeko euskalgintzako hainbat eragile Ezkurdin batu zen eguaztenez mobilizazioari atxikimendua adierazteko. EHE, Berbaro, ANBOTO, Gerediaga, AEK eta udal euskaltegiak gainera, Durangoko ikastetxeetako hainbat ordezkari, besteak beste, bat egin zuten deialdiagaz. Hartara, eskualdeko euskaltzaleei dei egin diete Bilboko kaleak betetzera azaroaren 4an. Manifestazioa 17:00etan irtengo da Euskaldunatik, eta Bilboko udaletxe aurrean amaituko da. Azken urteetan euskararen alde egin den manifestaziorik jendetsuena izango dela aurreikusi dute deitzaileek.

Euskararen normalizazioaren kontrako epai sortagazko desadostasuna agertu dute Kontseiluaren kide diren eragileek. "Erandioko Udalekoa, Uliazpi Fundazioari

buruzkoa, Barakaldokoa, Irungo udaltzainena, Nafarroako hainbat udaletakoa, edo euskara hizkuntza zailegia dela argudiatu zuen Laudioko sententzia" gogoratu ditu Kontseiluak, besteak beste. Uztailaren 6an "oldarraldiak" beste koska bat gora egin zuela azaldu dute: Espainiako Konstituzio Auzitegiak udalerrri euskaldunei euskara hutsez funtzionatzeko aukerak murriztu zizkien, EAeko Udal Legeko 6.2. artikulua partzialki baliogabetuz. "Euskararen normalizazioan aurrerapausoa egiteko tresna sendo bat indargabetu zuen. Baina, horrez gainera, adostasun sozial handi baten kontrako izan zen epai hori, Udal Legea gehiengo zabalez onartu baitzen Eusko Legebiltzarrean, eta azken Inkesta Soziolinguistikoa argi erakutsi baitu Araba, Bizkai eta Gipuzkoako herritarren gehiengo zabal-zabalak babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak", esan du Idurre Eskisabel Kontseiluko idazkari nagusiak.

## Atzeritartasunari buruzko informazio saioak Durangon

Lanean eta familian laguntzeko bost saio antolatu dituzte

### DURANGO • E.H.

Durangoko Immigrazio Sailak atzeritarrekin hartu-emantandaudenei zuzenduriko bost saio antolatu ditu. Berbaldiak dira bostak, atzeritarrei lan arloan zein familia arloan laguntzeko informazio praktikoa emango dutenak. Gaur bertan izango da lehenengo saioa. Zabalzen-Sartuk Murueta Torre urbanizazioko 8. atarian duen bulegoan, ziurtagiri digitalari buruzko zalantzak argituko dituzte. Informazioa 11:30etik 13:30era emango dute. Bigarren saioa azaroaren 24an izango da, Elkartegian, 18:00etan. Inmaculada Perez abokatuaren eskutik, atzeritartasun orokorra landuko dute. Gero, azaroaren

8an, Munduko Medikuek elkarrearen eskutik, osasun sistema aztertzekeo berbaldia egongo da (10:30ean, Elkartegian) eta tituluen homologazioa aztertuko dute azaroaren 15ean, Kosmopolisen eskutik. (17:30ean, Elkartegian). Azaroaren 6an, ziurtagiri digitalari buruzko bigarren saio bat egingo dute. Zabalzen-Sartun izango da hori ere, 15:00etatik 17:00etara.

**Ziurtagiri digitala, osasun sistema eta tituluen izango dira landuko dituzten gai batzuk**

ko dute azaroaren 15ean, Kosmopolisen eskutik. (17:30ean, Elkartegian). Azaroaren 6an, ziurtagiri digitalari buruzko bigarren saio bat egingo dute. Zabalzen-Sartun izango da hori ere, 15:00etatik 17:00etara.

## Mozorro Egunagaz jaiari merezi duten amaiera emango diete Durangon

Durangarrek astebete izan dute indarrak berritzeko. Sanfaustoetako bigarren asteburuaren atarian egitarau oparoaz gozatzeko aukera dago oraindino

### DURANGO • J.G.

Jaietako bigarren asteburura begira mozorro bila ibiliko da banakaren bat oraindino. Zapatuan taldekako mozorro desfilea egongo da. Madalenen hasiko da, 18:30ean, eta Ibaizabal parkeraino joango da. Amaieran sarien zozketa egingo dute. Musikak ere izango du bere lekua asteburuan. Gaur, urriak 20, Huntza taldearen kontzertua izango da Ezkurdin, 23:00etan. Bestalde, txosnagunean Nakar, TOC eta Biznaga taldeek joko dute, 22:00etan hasita. Zapatuan, gazteei zuzenduriko karaokea egingo dute Goazenegaz, Ibaizabal parkean. Domekan amaituko dituzte jaiak, Patxikotxu agurtuta.



Iazko Mozorro Eguneko une bat.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko urriaren 20a  
21. urtea - 953. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Etxebizitza alokatzeko laguntzak prest Zornotzako gazteentzat

**ZORNOTZA • E.H.**

Zornotzako Udalak diru laguntzak prestatu ditu etxebizitza bat alokatu gura duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Laguntzok eskatzeko epea zabalik dago, azaroaren 17ra arte. Diru laguntza jasotzen duenak alokairurako erabili beharko du jasoriko dirua, gutxienez hamabi hilabeteko iraupenagaz. Eskatzaileak edo bizikidetzak-unitateko kide batek ezin izango du etxebizitzarik jabetzan izan, herentzia edo dohaintza bidez erosirik etxebizitza kasuetan izan ezik. Horrez gainera, bizikidetzak-unitateko helduetariko batek udalerrian erroldatuta egon beharko du azken urte bietan jarraian.

## Uztargi.klik elkarteak argazki rallya antolatu du urriaren 29rako

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

Zornotzako Uztargi.klik argazki elkarteak lehenengo rallya antolatu du, udalaren laguntzagaz. Elkarrekin iragarri du lau sari izango direla. 350 euroko saria lehenengoarentzat, 250 eurokoa bigarrenarentzat, 200 eurokoa hirugarrenarentzat eta 150ekoa tokiko argazkirik onenarentzat. Ixerbekoa kiroldegian eman beharko da izena, urriaren 29an bertan, 08:30etik 09:30era. Izena emateagaz batera, antolatzaileek hamaiketako banatuko dute. Rallyari buruzko oinarriak eta araudia kontsultatzeko [www.uztargiklik.com](http://www.uztargiklik.com) ataria bisitatu daiteke.

# Bizkargi Egunaren jatorria eta bilakaera jaso dituzte 18 testigantzatan oinarrituriko dokumental batean

Ikus-entzunezkoa urriaren 26an estreinatuko dute, Zornotza Aretoan, 20:00etan. Gero, mahai-ingurua egingo dute

**ZORNOTZA • EKAITZ HERERA**

Dokumentalak *Bizkargi Egunaren jatorria eta bilakaera* du izenburu, eta Zornotzako Udala eta Labayru Fundazioa ditu bultzatzaile. Azken honek hartu du dokumentazio lana eta ikus-entzunezkoa egiteko ardura. Labayruko zuzendari Igone Etxebarriak azaldu duenez, Bizkargi Eguna "ondare immaterial" modura azaltzeko eta gorpuzteko ahalegina da bideoa: "Kontakizun poliedrikoa da, elkarrizketatu bakoitzak bere ikuspuntutik, bere bizipenetatik, kontatzen baitu Bizkargi Egunarekiko duen atxikimendua. Erromeria, aldarrikapena, bizipenak, letania erlijiosoak, memoria... horiek guztiak dira Bizkargi", azaldu du. Ikus-entzunezkoaren narratiba osatzeko, 18 herritar elkarrizketatu dituzte, era batera edo bestera Bizkargi Eguneko bizipenekin lotura dutenak. Horien artean zornotzarrak daude, jakina, baina mendi tontorrean Morgak, Larrabetzuk eta Muxikak ere bat egiten dutenez, udalerririk



Zornotzako Udaleko eta Labayru Fundazioko kideak.

rietako protagonistak ere badaude bideoan.

Dokumentala Zornotza Aretoan estreinatuko dute, urriaren 26an, 20:00etan. Gonbidapenak Zornotza Aretoaren web atarian ipiniko dituzte eskuragarri. Ikus-entzunez-

koa proiektatu ostean, mahai-inguru bat egingo dute. Dokumentalak 55 minutuko iraupena du. Jon Artabe Euskara eta Herrigintza zinegotziak gaineratu duenez, urriaren 27ra arte Bizkargi Egunari buruzko erakusketa bat egongo da Zelaieta

Zentroan. Ainhoa Salterain alkateak azaldu du egitasmoa Ondarearen Europako Jardunaldien parte dela. Alde horretatik, "Bizkargi Egunaren historia, bilakaera eta garrantzi kulturala" azpimarratu ditu.

## Euskal Jaiak Zornotzako kaleak hartuko ditu asteburuan

Gontzal Mendibilek emanaldia egingo du zapatuan, Zornotzako Bandagaz eta abesbatzagaz batera

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako hogeitaz hamar eguneko eragilek baino gehiagok indarra batu dute elkarlanean Euskal Jaia ospatzeko. Asteburu honetan egingo dute, herriko hainbat lekutan zehar. Gaur, barikua, txupina jaurtita eta trikitilarien kalejiragaz berotuko dute giroa. Bestalde, Zutik erromeria taldeak musikaz beteko du Zelaieta parkea, 21:00etan. Zapatuan ez da txistularirik, txalaparta

soinurik, kalejirarik eta Zornotzan Kantuz egitasmoa faltako. Herri bazkaria ere egingo dute. 15:15ean izango da, Zelaieta parkean. Txartelak Xiberu, Urtza eta Txiri-txiri tabernetan ipini dituzte salgai. Gontzal Mendibilek kontzertu batez emango diote amaiera egunari. Zornotzako Bandagaz eta abesbatzagaz batera abestuko du, 22:00etan, frontoian. Egitarau osoa [anboto.org](http://anboto.org) atarian dago.



Iazko Euskal Jaiko argazkia.

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**  
2.500 bezerok gugan dute konfiantza

946 523 935  
[bertako.eus](http://bertako.eus)



## Elorrioko pentsiodunek Arartekora joko dute herrian eguneko zentro bat behar dutela eskatzeko

Elorrioko Pentsiodunen Mugimenduak prentsurrekoa egin du aste honetan. 50 bat lagun batu ziren bertan

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrion eguneko zentroaren eskaera aldarrikapen historikoa da. Azken denboretan hainbat eskari egin dute, bai herritarrek eta baita udalak ere. Esaterako, orain urte bi sinadurak batzen hasi ziren ezgaitasun maila ezberdina duten pertsonentzat eguneko zentroa zabaltzeko. 1.155 sinadura batu zituzten.

Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak hala eskatuta, CPS ikerketa enpresak txosten bat egin zuen eta pentsiodunek aste honetan egindako prentsurrekoan azaldu dute txosteneko datuak "argiak baino argiagoak" direla: "Txostenean argi ageri da Elorrion eguneko zentroaren premia dagoela".

Orain dela aste batzuk, ostera, Elorrioko Udaleko ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiko kideekin batu ziren, eta eguneko zentroari berriro ere "ezezko borobila" eman diotela gehitu zuten pentsiodunek prentsurrekoan. Hori horrela, Elorrioko pentsiodunek Arartekora joko dutela jakinarazi dute asteon, eta Elorrion eguneko zentro bat izan arte kalean egongo direla gaineratu dute.



Asteheneroko prentsurrekoko argazkia.

## Berbalagun taldea, euskara eta joskintza uztartzeko

Berbalagunek egitasmoak jostunen taldea sortu du

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrion, Berbalagun ekimenak plan berri bat proposatzen du euskaraz berba egiteko ohi-tura dutenentzat eta euskara praktikatu gura dutenentzat: taldean batu, euskaraz berba egin eta joskintza saioak egitea da asmoa. Kakorrazekin josten, makramea edo puntua egiten, edo bordatzen iaioak diren pertsoneri zuzenduriko ekimena da, jostea gustuko dutenentzat

eta dakitena ingurukoekin partekatu gura dutenentzat oso egokia. "Euskara eta joskintza uztartzeko plan ederra izango da", azaldu dute Berbalaguneko arduradunek.

Berbalagun mintzapraktika egitasmoa eguaztenetan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean, Iturri kultur etxean. Bertan parte hartu gura dutenek 639 400 786 telefono zenbakira deitu behar dute.

## Talde Batuak dantza taldeak urteurren jaia ospatuko du azaroaren 3an eta 4an



Taldearen 40. urteurrenko argazkia. TXELU ANGOITIA.

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Talde Batuak dantza taldeak 50 urte egin zituen pandemia betean, eta garai hartan urteurrena ospatu ezin izan zutenaz, azaroko lehenengo asteburuan ospatuko dute: 50 + 3.

Ospakizunak barikuan hasiko dituzte, azaroak 3, Korrontzi taldearen kontzertuagaz. Azaroaren 4rako, zapatua, egitarau zabala antolatu dute. Alardeagaz hasiko dute eguna. Gero, bazkari herrikoia izango dute, eta taberna ibiltaria arratsaldean. Bazkarirako txartelak laguntzaile diren tabernetan eskuratu daitezke, urriaren 27a baino lehenago.

## Doako parkour ikastaroa domekan, urriak 22, Atxondon

Ikastaroan maila bi egongo dira. Bata oinarrizko maila izango da, eta bestea hobekuntza maila

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, doako parkour ikastaroa emango dute domekan, urriak 22, Atxondon. Ikastaroa 16 urtetik gorakoentzat da eta Apata-monasterioko parkourgunean izango da. Txanda bi egongo dira: oinarrizko maila eta hobekuntza maila. Oinarrizkoa 10:30etik 12:00etara izango da, eta bestea

**Parkour ikastaroko plazak mugatuak direnez, izena aurretiaz eman beharko da bertan parte hartzeko**

12:00etatik 13:30era. Ikastaroko plazak mugatuak direnez, izena aurretiaz eman behar da bertan parte hartzeko.

## Abadiñarrek azaroaren 1era arte aurkeztu ditzakete aurrekontu parte hartzaileetarako proposamenak

Aurkezturiko proiektuek udalaren eskumenekoak izan beharko dute, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua martxan da Abadiñon, eta herritarrek azaroaren 1era arte izango dute aukera euren proposamenak aurkezteko, Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan jarri-riko hautetsontzietan. Abadiñoako Udaletik jakinarazi dutenez, Abadiño behar dituen inbertsioen eta proiektuen parte bat definitzea du helburu prozesu honek. 16 urtetik

gorako herritarrek izango dute parte hartzeko aukera.

Edozein zalantza argitzeko, informazio standak ipiniko dituzte herrian. Gaur, esaterako, Zelaietan ipiniko dute bat. Horrez gainera, teknikari bat Zelaietako eta Traña-Matienako adinekoren zentroetara joango da; urriaren 21ean eta 25ean, hurrenez hurren.

"Gobernu talde berriaren iritzian, herritarren parte-hartzea

kudeaketarako tresna garrantzitsua da, herritarrek iritzia emateko eta ekarpenak egiteko mo-

**Edozein zalantza argitzeko, informazio standak ipiniko dituzte herrian**

dua, denon artean Abadiño hobe-egiteko", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.



# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
*Konfiantzazko hortz klinika Durango*

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.

**keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**prōktós.clinic**

**Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktoklinika.eus](mailto:info@proktoklinika.eus)

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D  
DURANGO**

[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •  
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI •  
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka -  
48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Podologia**  
PSE: 214/06



**OINETAKO PATOLOGIARIK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 beheka  
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.  
Saio pertsonalizatuak dira,  
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea  
beheka eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13



# Mallabiko Urriko Jaietan Gozategi, Merina Gris, Hofe x 4:40 eta TOC taldeek joko dute

Zuzenekoak urriaren 28ko zapatuan izango dira, parkean. Bezperan Aiama eta Akerbeltz taldeak arituko dira

## MALLABIA • J.D.

Urriko Jaiak hastear dira eta, urtero legez, udalak eta herriko elkarteek ekimenez beteriko egitaraua osatu dute elkarlanean. Kontzertuei dagokienez, urriaren 28ko zapatua da egunik potentea: Gozategi, Merina Gris, Hofe x 4:40 eta TOC taldeek joko dute parkean, rocka, trikitixa eta beste musika estilo batzuk batuko dituen jaialdian. Bezperan, hilaren 27an, beste talde bi igoko dira eszenatokira: Amaia Izarzugaza musikariaren Aiama taldea eta Akerbeltz erromeria taldea.

Datorren astera itxaron beharrik barik, Urriko Jaietako ekimenak asteburu honetan bertan hasiko dira. Pello Mugarzak, Justo Azagirrek eta Jesus Mari Uribelareak idatzirik *Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek - iraganeko bizimodu baten lekuko* liburuan oinarrituta, liburu horretan jasoriko antzinako lanabes batzuen erakusketa antolatuta dute Gerediaga elkar-

teak eta udalak. Horrez gainera, berbaldi bat antolatu dute lanabes horien erabilera zein zen azaltzeko. Domekan izango da, 12:30ean, Kontzejuzarrean, eta Jesus Eguzkitza 'Eguzki'-k emango ditu azalpenak. Toki berean dago antzinako lanabesen erakusketa ere.

## Domeka honetan antzinako lanabesen inguruko erakusketa eta berbaldia daude Kontzejuzarrean

Egitarau zabalaren barruan, beste ekitaldi hauek ere nabarmendu daitezke: herri kirol erakustaldia, kickboxing boxeo gala eta elizpeko pilota txapelketako finala urriaren 27an, ardo feria urriaren 28an, eta autoen slaloma Goitondo Behekoan urriaren 29an.



Merina Gris. @CECILIA\_DVYR

## Euskara ikasteagaitik diru laguntzak eskatu daitezke Mallabian, hilea amaitu arte

### MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalean euskara ikasteko diru laguntzak eskatu daitezke. Guztira, 3.000 euroko diru partida bat ipini dute beketan banatzeko. Mallabian errolatuta dauden eta udal euskaltegietan, euskaltegi pribatuetan zein barnetegi homologatuetan ematen diren euskara ikastaroetara doazenek jaso ditzakete beka hauek. Hizkuntza Eskola Ofizialean edo IRAL Eren, IVAPen eta abarren berriazko programen bitartez ikastaroak egin dituztenak ezingo dira diru laguntza honen onuradunak izan. Ikastaroen %75-79an parte hartu dutenek matrikularen %75 jasoko dute; %80-89an parte hartu dutenek, matrikularen %90; eta hortik gorakoek, matrikularen %100.

Eskaerak Mallabiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eta aurkezteko epea urriaren 31ra arte dago zabalik.



Puro Relajo taldea zuzeneko batean.

## Bazkaria eta Puro Relajoren musika, Santa Ursula egunean

Mañariko Ursula Donea nagusien elkarteak frontoian egingo duen bazkarian 83 lagun batuko dira

### MAÑARIA • J.D.

Zapatu honetan Santa Ursula eguna da eta, urteroko ohiturari eutsiz, Ursula Donea nagusien elkarteak bazkaria antolatu du eguna ospatzeko. Guztira, 83 lagunek eman dute izena pilotalekuan egingo duten bazkarirako. Gehienak elkarteko bazkideak

dira, baina bazkide ez diren 10 bat lagun ere badaudela azaldu dute elkarteko kideek. Bazkaria Herriko Tabernan prestatuko dute. Arratsaldean, 19:00etan, Puro Relajo taldearen kontzertua hasiko da, udalak antolatuta. Iaz oso harrera ona izan zuenez, aurten talde bera ekartzea pentsatu dute.

## Otxandion Kultur Aniztasunaren Eguna ospatuko dute zapatu honetan, 11Lore elkarteak antolatuta

### OTXANDIO • J.D.

Zapatu honetan Kultur Aniztasunaren Eguna ospatuko dute Otxandioko plazan. Herrian bizi diren askotariko kulturak batzeko eta kultur aniztasunak dakarren aberastasuna ezagutarazteko eguna izango

## 13:00etan, jatorri desberdinetako janaria dastatuko dute, musikagaz lagunduta

da. 12:00etan umeentzako tailerrak egingo dituzte. Ondoren, jatorri desberdinetako janaria dastatzeko aukera egongo da, musikagaz giroturiko ekimenean.

Ekimena Otxandioko 11Lore elkarteak antolatu du. Elkarteak beharrezkoak duten familia eta pertsonen laguntza die, hainbat modutan.

## Izurtzako Udalak 60.000 euroko laguntza jaso du Aldunditik espaloia egiteko

Lanak orain bi-hiru aste hasi ziren, eta Izurtza oinezkoentzat eremu seguruago bihurtzea dute helburu

### IZURTZA • J.D.

Orain bi-hiru aste, Izurtzako herrigunean espaloia zati bat egiten hasi ziren. Lan horietariko parte bat Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu duela iragarri du asteon Izurtzako Udalak; hain zuzen ere, 60.000 euroko diru laguntza jaso dute Aldunditik. Udalak, bere

partetik, 72.000 euro ipiniko ditu. Izurtza oinezkoentzat atsegina eta seguruago bihurtzeko egitasmoaren barruan daude lanak. Azken urteetan hainbat neurri hartu dute oinezkoen begira; hala nola iaiztik zazpi semaforo mar txan daude ibilgailuen gehiegizko abiadura gutxitzeko.



Durango-Mañaria norabidean errepidearen ezkerreko aldean dabilta espaloia egiten.





# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**





**anboto**  
kide

# Anbotokideen txokoa


## URRIKO ZOZKETAK



**Loti ederra** antzerkirako sarrera bikoitza. Urriaren 28an, Zornotza Aretoan.



**Yarin** dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Urriaren 28an, San Agustinen.



**Xiberu tabernan** bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

'Emozio festa!' (Ene kantak), Arriolan: Igor Garalde Badiola  
Errigorako saskia: M<sup>a</sup> Tere Larrañaga

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Berrizko gaztetxeak berbaldia antolatu du 25. urteurrenaren harira

Urriaren 27an izango da berbaldia, 19:00etan; 'Hiltegixe 25 urtez bizirik' lelopean, hainbat ekitaldi antolatu dute

**BERRIZ • A.M.**

1999an zabaldu zutenetik 25 urte pasatu direla eta bizirik jarraitzen dutela ospatzeko, Berrizko Hiltegixe gaztetxeak ekitaldi sorta ipini du martxan. Urriaren 27rako, barikua, berbaldia antolatu dute gazte sortzaile berriztarrekin. Herriko gazte sortzaileek esateko dutenari buruz hausnartuko dute Julen Apellak, Iker Olabegoiak eta

Iruri Altzerrekak. Apella idazlea da, *Postal bat desertuan* liburuagaitik Donostia Kultura saria jaso du; Olabegoia musikaria da, *Marlow, mikroabestien dokumentua* proiektuaren sortzailea; Altzerreka bertsolaria da eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetarako sailkatu zen aurreko astean. Gaizka Berrizbeitiak dinamizatu du berbaldia.



Berrizko Hiltegixe gaztetxea.

## Batzarrera deitu dute Berrizko jai batzordea osatu eta jaiak antolatzeko

**BERRIZ • A.M.**

Berrizko jai batzordeak deialdia egin du herriko jaiak antolatzen laguntzeko. Bilera datorren astelehenean izango da, urriak 23, 19:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Udalak ere babestu du deialdia, horrela, berriztar guztientzako moduko jaiak antolatzeko. Hau ez da Berrizko jai batzordera jende gehiago eta jende gazteagoa hurbiltzeko egiten den lehenengo deialdia; izan ere, azken urteetan babes hori lortu guran dabilta.

Bestalde, Berrizko Udalak 'Ikasi zure mugikorra erabiltzen' doako ikastaroa antolatu du. Adinekoei zuzenduriko ikastaroa da, telefono mugikor baten oinarritako erabilera ikasteko; banka online, Osakidetza eta bestelako aplikazioekin lan egitea erakutsiko zaie parte hartzaileei. Tailerra egun bitan egingo dute, urriaren 23an eta 25ean, astelehena eta eguaztena, hurrenez hurren. Kultur Etxean izango da, 17:00tik 19:00etara. Izen ematea urriaren 20ra bitartean egin daiteke, [gizarte3@berriz.eus](mailto:gizarte3@berriz.eus) helbidean. Ikastaroak doakoak izango dira eta BBK fundazioaren 'Herririk herri: Digitalizazio lagunkoia' programaren barruan antolatu du Berrizko Udalak.

## Urriaren 31n amaituko da Zaldibarko Berbalaguna ekimenean izena emateko epea

Euskaltzaleen Topagunearen esanetan, 7.700 lagun elkartzen dira mintzapraktika saioetan



**ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO**

Mintzalagun ekimenean, hau da, lagun artean modu eraginkorrean eta giro ezin hobean euskaraz aritzeko ekimenean izena emateko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik Zaldibarren. Bertako sustatzaileen esanetan, Zaldibarren hiru taldetan daude banatuta hango 16 parte hartzaileak; talde horietariko bi martitzenetan 18:00etan eta eguenetan 16:15ean batzen dira. Hirugarren taldea martitzen goizetan elkartzen da, 09:30ean. Izena emateko, [labur.eus/zaldibarkoberbalaguna](http://labur.eus/zaldibarkoberbalaguna) webgunea jo behar da. Euskaltzaleen Topaguneak sustaturiko ekimen honek 7.700 lagun batzen ditu Euskal Herrian.

lazio Berbalagunek antolatutako ekimen bateko argazkia.



## Telefonoaren oinarrizko funtzioetan trebatzeko ikastaroak Garain

**GARAI • E.H.**

Garain egun biko ikastaroa antolatu dute, herritarrei gaitasun digitaletan sakontzen laguntzeko. Sakelako telefonoaren oinarrizko funtzioekin trebatzeko saioak izango dira, telefono mugikorrari eta bere aplikazioei ahalik eta etekirik handiena ateratzea ahal-

**Azaroaren 13an eta 15ean egingo dituzte jardunaldiak, 10:30-12:30 ordutegiagaz**

bidetuko dutenak. Jardunaldiak azaroaren 13an eta 15ean egingo dituzte, Kultur Etxean, 10:30etik 12:30era. Udal iturriek jakinarazi dute zabalik dagoela ikastaroetan izena emateko epea. 15 lagunek parte hartu dezakete gehienez, eta inskripzioa udaletxean egin beharko da. Ikastaroak debalde emango dituzte.

## Iurretan ihes gela egingo dute, garapen jasangarrirako helburuekin lotuta

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako Udalak Garapen Jasangarrirako Helburuekin loturiko ihes gela antolatu du urriaren 27 eta 28rako, BBKgaz elkarlanean. GJHen ihes gela eramangarria izango da eta ordubeteko iraupena izango du. 12 urtetik gorako gazteek eta helduek parte hartu dezakete, eta Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030 Agendari buruz ikasteko aukera izango dute. Gaztegoek ere parte hartu dezakete, heldu baten laguntzagaz. Kultur etxean eman daiteke izena. Jasangarritasunaren aldeko boy scout taldeko kide bihurtuko dira parte hartzaileak, eta 2030 Agendaren intsignia guztiak batzea izango dute helburu. Horretarako, askotariko logika-eta adimen-probak gainditu beharko dituzte. Helburua lortzen dutenek saria jasoko dute. Urriaren 27an, 17:00etatik 21:00etara egingo dute ihes gela; 28an, 16:00etatik 21:00etara.

## Berton Bertokoak dio Hezkuntza Legeak "eredu berri bat" jaso behar duela jantokietarako

Arlo akademikora mugatu barik, Hezkuntza Lege berria jantokien joko zelaira ere hedatu behar dela aldarrikatu dute. "Alternatiba bat" eskatu dute jantokien ereduari begira

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Eusko Jaurlaritzako politikariak Hezkuntza Lege berriaz eztabaidatzen dabiltzala eta, Berton Bertokoa dinamika eskatu du debate hori eremu akademikora mugatu barik eskola elikaduraren arlora ere zabaltzeko. Dinamikako kideak kexu dira arau berriaren eztabaidan jangelen

gaia "falta" delako. Jantokien eredu "agortuta" dagoela diote, eta "beharrezkotzat" jo dute "alternatiba bat" diseinatzea.

"Gure agintari politikoen ahotik sarri entzuten dugu bertoko produktuak erosteko gomendioa. Baina esaten dutena eta egiten dutena ez datoz bat", kritikatu dute. Dinamikako ki-

deen iritziz, Eusko Jaurlaritzako gobernu taldeak eta oposizioko kideek "aukera paregabea" dute "jangela eredu berri bati ateak zabaltzeko". "Gure lehen sektorea berpiztu, gure ekonomia suspertu, etorkizuneko belaunaldia osasuntsu hazi eta ingurua zaindu" egingo duen eredu aldarrikatu dute.



Berton Bertokoa dinamika osatzen duten kideetarako batzuk, Axpen.

**hamaika**

*Zure begirada*  
**Gure begirada**

f  
X  
YouTube  
Instagram  
TikTok





**Mohammad Farajallah**

Zornotzan bizi den  
palestinarra

HEBRON | 1986

AINHOA IRAOLA

# “Askatasuna interesen eta boterearen arabera da, bai Palestinan, bai mundu osoan”

Urriaren 7an Israelen eta Hamasen arteko gerra lehertu zen Gazan. Erasoaldiek krudelkeria ekarri dute eta ahotsik kritikoenek genozidioa egitea egotzi diote Israeli. Mohammad Farajallah palestinarrek kezka bizi du egoera

**PALESTINA • EKAITZ HERRERA**

**Mohammad Farajallah palestinarra Zisjordaniako Hebron hirian jaio zen, 1986an. Bederatzi urte daramatza Zornotzan bizitzen. Bilbon behar egiten du, garraio enpresa batean, eta zortzi urteko ume baten aita da. Egunotan, begirik kendu barik jarraitzen dio Palestinan gertatzen dabilenari. Kezka eta injustizia sentitzen ditu.**

**Zelan zaude?**

Ondo, zeozer esatearren. Palestinan hemen baino hobeto egongo nintzateke, nahiz eta han arriskuan egon. Hemen kezkatuta nago une oro. Gertatzen dabilenari begira, albisteak etengabe irakurtzen, larrituta. Han, oster, fami-

liaren eta lagunaren ondoan egongo nintzateke. Zeozer gertatuko baltitz, laguntzen egongo nintzateke. Gero, hemen egoteak badu beste alderdi estresagarri bat. Jende asko dabil ezelako informazio barik gertatzen dabilenari buruzko iritzia ematen.

**Iritzi publikoagandik jasotzen dituzun erreakzioetan zerk ematen dizu atentzioa?**

Jendeak komunikabideek diotena erreproduzitzen du, baina inork ere ez du lanik hartzen hau guzti hau zergaitik gertatzen dabilen jakiteko. Hau guzti hau ez da atzo goizean hasi, orain dela 78 urte baino. Jende askok baietz dio, Palestina lurralde okupatua dela.

Baina, aldi berean, gure lurretan egoteko eskubidea aitortzen diete israeldarrei. Hori diotenei honako hau galdetzen diet: Zelan erantzungo zenigukete gu zuen etxeetan bizitzen eta zuen etxeen jabe egiten hasiko bagina? Nazioarteko legediak oso argi dio okupazio baten pean dauden herrialdeek erresistentziarako eskubidea dutela.

**Zelan azalduko zenuke gaur egungo testuingurua?**

2023 hau urterik gogorrena izan da palestinarrentzat. Urtarriletik irailera, Israelgo armadak eta kolonoek gura izan duten dena egin dute gure kontra. Etxeetan sartu, lapurretan egin, etxeei

su eman jendea barruan dela, emakumeak bortxatu... Adibide bat ipiniko dizut. Orain olibak batzeko sasoia da Palestinan. Urtero-urtero, kolonoak olibondoetara joaten dira lanean dabilzanak oztopatzeraz edo olibondoei su ematera. Egoera horren aurrean harri bat jaurtitzea erabakitzen baduzu, armarik ez duzulako hain zuzen ere, kolonoek tiro bat bueltatzeko arriskua izango duzu. Eta, horren ondoren, armadako soldaduak etorriko zaizkizu atzetik. Horixe da gaur egungo testuingurua Palestinan.

**Urriaren 7ko erasoaldian, Hamasek zibilak zein militarrek hil zituen. Bahituriko herritarrak ere badira.**

Israelgo biztanle guztiak zerbitzu militarra egitera behartuta daude. Judu ortodoxoak baino ez daude neurri horretatik salbuesita. Lau urteko soldadu lanak dira, 16 urteko adinagaz hasi eta 20 urtegar amaitzen direnak. Hortik aurrera, israeldarrek armadako erreserbetan egotera igarotzen dira. Beraz, zibilei buruz dabilzan zeri buruz ari dira? Zerbitzu militarreko hirugarren eta laugarren urteak Gazan edo Zisjordanian ematen dituzte entrenamendu modukoak egiten. Zeozelan esatearren, gugaz egiten dute azterketa praktikoa. Nik ez ditut zibil legez ikusten. Denak izan dira-eta soldadu. Denek jazarri, kolpatu edo tirokatu dituzte palestinarrek bizitzako uneraren batean. Bestalde, aipatu beharra dago beste errealitate bat ere badagoela. Soldadu izaniko askok traumak dituzte, ezinegona dute. Errealitate hori ere badago. Gutxi dira, baina humanitate apur bat dutenak ere badaude.

**Baduzu herri palestinarren ahotsa isilarazia izaten ari den sentipenik?**

Bai. Israelek milioika dolar ematen dizkie komunikabideei eta sare sozialetako enpresei Gazan gertatzen dabilena bere interesen arabera zabaltzeko. Nik, adibidez, Instagram kontua daukat, eta Palestinari buruzkoak lau haizeetara zabaltu ditudanetik, kontua blokeatuta daukat. Hedabideetan ere ikusten da isilarazte hori. Al Jazeera da arabiarren munduko hedabiderik handiena. Ahobizarririk barik berba egiten dute, filtroik barik. Bada, orain egun batzuk, Israelek eskari bat erregistratu zuen Al Jazeera Palestinatik kanporatzeko. Denboragaz ikasi dut hedabideek askatasunari buruz zabaltzen duten irudia ez dela existitzen. Askatasuna interesen eta boterearen arabera da, bai Palestinan, bai mundu osoan.

**Palestinan jaio zinen, Zisjordaniako Hebron hirian. Familia eta lagunak han dituzu?**

Bai, familia eta lagunak, denak ditut han. Nire bizimodua berria da Zornotzan, baina zaharra Palestinan dut. Nire bizitzaren %80 han dago. Hemen, herritar baten bizimodua beharrera joatea da, ikastea, unibertsitatara joatea, eguna aprobetxatzea, zaletasunekin gozatzea, lagunekin geratzea. Zein beldur sentitu dezakezu hemen? Beharrean gorabeheraren bat izatea, akaso? Beharbada horrelako zeozer. Baina han, palestinar batek honako hau diotso bere buruari, goizero esnatzen denean: “Ea gaurko hau ez den nire bizitzako azken eguna”. Egunean zehar bizitzera mugatzen zara. Munduko beste edozein lekutan baino aukera



gehiago duzu hiltzeko. Gaixotasunak eta istripuak hemen zein han izan ditzakezu. Baina han soldaduak dituzu aurrean, tiroketak, bonbak...

### Baduzu familiaren eta lagun berririk?

Sare sozialen bidezko hartu-emaña dut haiekin. Mezuak bidali eta bideo-deiak egiten ditugu. Lagun batzuekin, adibidez, futbolari buruz berba egiteko Facebook talde bat erabiltzen dut. Horretarako baino ez daukagu orrialde hori, futbolari buruz berba egiteko. Ez dugu politikaz jarduten. Eta hara, talde horren barruan Zisjordaniako eta Gazako lagunak ditut. Eurretari bi Tamer eta Basel dira, Gazakoak, Real Madril taldearen jarraitzaile sutsuak biak. Noizbait Santiago Bernabeu estadioa bisitatzegaz amets egiten dute. Bada, asteon jakin dut Tamer eta bere familia eta Basel eta bere familia hil egin dituztela. Denak hil dira. Bien emazteak, seme-alabak, lehengusu-lehengusinak. Pena itzela sentitzen dut. Eta argi esango dizut: mundu honek pena ematen dit. Hau kakazahar handi bat baino ez da.

### Ohitu daiteke biolentzia egoera batean bizitzera?

Zisjordaniatik Jordaniara igarotzen zarenean, konturatzen zara

zure biziak ez duela ezertxo ere balio. Bizitza osoan sentitu dituzun beldurra eta jazarpena muga bat gurutzatzean amaitzen direla ikusten duzu. Han ez baitago zuri egunero beldurra ematen dizun munstrorik, ez ur mozketarik, ez argindar mozketarik. Aireportua dago, bizitza dago. Ni intifada batean jaio nintzen. Egunero ikusten duzu baten bat hiltzen dela,

**Jende askok baietz dio, Palestina lurralde okupatua dela. Baina, aldi berean, gure lurretan egoteko eskubidea aitortzen diete israeldarrei**

zauritzen dela, atxilotzen dutela. Tristezia horrek eragiten dizu, baina denboragaz ikusten duzu gure bizitzaren legea biolentzia horregaz bizitzea dela.

**Laguntza humanitarioa blokeatzea, elektrizitatea eta ura moztea, ... horiek ohiko egoerak bihurtu dira Gazan.**

Oso egoera larria da. Gazako herritarrak ur bila dabilta, ahal

du ten lekuetan. Ez dago elektrizitaterik, eta munduagaz konektatu ahal izateko, autoetako bateriak erabilia kargatzen dituzte telefono mugikorrak. Botikak, osasun azpiegiturak, odol transfusioak... behar-beharrezkoak ditugu. Egiptok ez du Rafah hiriko muga zabaldu gura; hori egiten badu, Israelek kamioi humanitarioak tirokatuko dituelako. Egiptok Israelen baimena bilatu gura du muga zabaltzeko. **Israelek dio bere helburua Hamas amaitzea dela. Helburua ez dela Palestina. Ados zaude?**

Ez. Gertatzen dabilenari begiratzen badiogu, eraso egindako eraikinak zibilenak dira. Hildakoen %65 umeak eta emakumeak dira. 50 familia oso-osorik ezabatu dituzte Palestinako erregistro zibiletik. Umeak, gurasoak, aitita-amamak, bilobak... Den-denak hil dira 50 familia horietan. Ospital bati eraso egin diote eta 500 bat palestinar hil dituzte.

**Zelakoa iruditzen zaizu Mendebaldeko estatuen eta nazioartean erreakzioa?**

Mendebaldeko herrialdeek Israeli armarik sofistikatuenak, itsasontziak eta dirua bidalita erreakzionatu dute. Ikusten dugun laguntza bakarra Israel-

darrentzakoa da. Eta ez bakarrik armei dagokienez. Beharbada soldaduak ere bidaliko dituztela adierazi dute. Gerra dela diote, baina noren kontrakoa? Zibilen kontrako gerra da. Hildakoak zibilak dira.

**Oso egoera larria da. Gazako herritarrak ur bila dabilta. Ez dago elektrizitaterik eta autoetako bateriak erabilia kargatzen**

**Gerra erlijiosoa eta politikoa daude nahasita? Zein irakurketa egiten duzu?**

Hau ez da gerra erlijioso bat, heldabide batzuek hala aurkezten badute ere. Hau auzi politiko bat da, bere osotasunean. Palestinan ere badira juduak, han bizi dira. Eta Ameriketako Estatu Batuetako askok ere ahotsa goratu dute. Gogorazi dute Tora liburuak, judaismoaren liburu sakratuak, juduek aberririk ez dutela eta izango ez dutela jasotzen duela. Mundu osoan zehar

bizi behar dutela jasotzen du liburuak. Beraz, hemen daukaguna sionismoa da. Judu talde batek honako hau egitea erabaki du. Sionista guztiak juduak dira, baina judu guztiak ez dira sionistak. Kontzeptu hau inportantea da, hor ikusten delako auzia ez dela erlijiosoa, politikoa baino. 70 urte baino gehiago irauten dabilen okupazioa da, itsuturiko mundu baten aurrean gertatzen dabilena.

**Zein irtenbide gura duzu gerrarentzat eta Palestinarentzat?**

Ez dut sufrimendurik eta injustiziarik inon ikusi gura. Ez dut inor hiltzen ikusi gura. Baina gerra hau amaitzearen arriskua urte batzuk barru beste gerra bat hastea da. Horrenbestez, hasierako egoerara bueltatzea gura dut. Palestina osoa geurea izatea gura dut, ez Gaza eta Zisjordania bakarrik, lur osoa baino. Gobernu bat izatea gura dut, estatu bat izatea, herrialde hori guk geuk gobernatzea. Gero gure herrialdera bizitzera etorri gura duzuela? Ba, ederto, baina estatua geurea da. Munduan boterea dutenek badute horretarako aukera. Israel desegitea, bertako herritarrei eskubideak bueltatzea, eta lur zati horri Palestina izena ematea.



## Palestinarekiko elkartasuna

ELKARTASUNA • E.H.

Hainbat herritarrek protesta egin dute palestinarekiko elkartasuna adierazi eta Israelgo gobernuaren jokabidea salatzen. Joan zen martitzenean Zaldibarren batu ziren, eta eguaztenean Abadiñon eta Durangon. Azken honetako elkarretaratzea Kontseilu Sozialistak antolatu zuen. Bertan azaldu zuten, "Israelgo estatuak etengabe jazarri" ditu palestinarrak, "lurren okupazioaren" eta "erailketaren" bitartez, beti ere "Mendebaldeko blokearen bitartekaritzei esker".

Sortuk, Ernaik eta LABek astelehenean egin zuten protestarako deia, Zornotzan. Eta eragile horiek deituta, Jurretan ere mobilizatu zi-

ren eguenean. Atxondon eguazten arratsaldean irten zuten Irubideko biribilgunera elkartasuna adieraztera. Durangon KEM-MOCek deituta elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, Andra Marian. Eta atzo Durangoko hainbat elkarte eta alderdi politiko Ezkurdin batu zen *Okupazioa gelditu, Palestina askatu* lelopean. Elorrioren gaur irtengo dute kalera, 19:00etan. Herriko plazan elkartuko dira Lajwad, Ernai, Asanblada Feminista, Sortu eta Argi Gorriak elkarteak lagun. Gaur, 19:30ean Berrizen ere herriko hainbat eragilek mobilizazioa deitu dute. Urriaren 20an Durangoan deitu dute Donostian.

Zapaturako manifestazio nazionalera deitu dute Donostian.



Goitik behera, Durangon, Zaldibarren eta Abadiñon egindako elkarretaratzeak. Eskuman, Durangon egindako elkarretaratzea.



**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' pertsona maitatua da dantzaren munduan. Argi geratu zen hori joan zen asteko domeka eguerdian Jaizale txistulari elkarteak Andra Mariko elizpean eginiko ekitaldian.

Durungaldeko txistulari asko egon zen presente omenaldian, eta txistu eta atabal doinuak izan ziren nagusi bertan. Durungaldeko txistularien familia batzeko baliatu zuten ekitaldia. Beste lagun ezagun eta maitatu batek ere parte hartu zuen: Karmelo Barruetañak. Txistulari talde batek banangoa ere dantzatu zuen.

Txistularietatik aparte, Abadiño lagun eta senitarteko ugari joan zen atabalariaren Durangoko omenaldira.

## Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' atabalariari omenaldi hunkigarria egin diote Durangon

Jaizale txistulari elkarteak antolatu zuen ekitaldia, joan zen domekan, Andra Mariko elizpean

**Umetatik plazan**

Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' abadiñarra umetan hasi zen atabala jotzen. Julian Azkarate 'Txanbolin' txistulariagaz ikasi zuen. Hasiieran, Ramon anaia bidelagun izan zuen. 12 urteagaz bazebilen plazarik plaza. Azkenengo urteetan Durangoko, Iurretako eta Abadiño txistulariekin jo du plazarik plaza.

Irailaren 23an Abadiñon antolaturiko Durungaldeko Ezpatadantzari Egunean ere jo zuen atabala 'Urtain'-ek.



Erdian, Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' eta Karmelo Barruetañak, txistulariz inguratuta.

**Durungaldea asteen**

### Aurrekontu parte hartzaileetan eskaturiko komun publikoa ipintzeko eskatu du EAJk

**ABADIÑO** | Aurrekontu parte hartzaileetan abadiñarrek proposaturiko komun publikoa ipintzeko eskatu dio EAJk gobernu taldeari. "Herritarrek aurreko legealdiko aurrekontu parte hartzaileetan hori erabaki zuten, eta gobernu taldeari eskatzen diogu abadiñarrei entzuteko eta euren beharrezane zuzenean erantzuten dieten proiektuak gauzatzeko", gehitu dute.

### 'Elorrion, denon bizitzak erdigunera' jardunaldiak, urrian eta azaroan

**ELORRIO** | Elorrion jardunaldiak antolatu dituzte urrirako eta azarorako, 'Elorrion, denon bizitzak erdigunera' lelopean. Lehenengo jardunaldia urriaren 26an izango da, 18:00etan, Iturrin. Berbaldia izango da eta egungo zaintza sistemaren erradiografia bat egingo dute bertan. Urriaren 27an, Elorrioko Zaintza Ibilbidea egingo dute Iturrin, 18:30ean.

### Sei adintxikiko atxilotu dituzte Zornotzan beste gazte bat jipoitzea egotzita

**ZORNOTZA** | Sei adintxikiko atxilotu dituzte Zornotzan, Adin Txikikoen Zentroan, beste bat jipoitzea egotzita. Gertaera martitzenean gertatu zen, urriak 17, eta jipoituriko adintxikikoa ospitalera eraman behar izan zuten. Ertzaintzak jakitera eman duenez, sei atxilotuei diligentziak zabaldu zizkieten eta momentu honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan daude.



### 'Bideak gurutzatzen' Liburutegi Publikoen XI. Kongresu Nazionalan hautatu dute

**DURANGO** | Bizenta Mogel Bibliotekaren eta Durangoko Immigrazio Arloaren 'Bideak gurutzatzen' proiektuak laugarren postua eskuratu du Liburutegi Publikoen XI. Kongresu Nazionalan. Bideo horretan, hainbat kulturatako pertsonen arteko elkarriketa, topaketa eta esperientzia trukea sustatzen da.

Bestalde, urte birik behin egiten duten kongresu honen helburua liburutegi publikoen zereginaren balioa azpimarratzea da, besteak beste.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

**Politikan**

Carlos García Fernández  
PP



### Durango-Athletic Club eta Tabirako-Bilbo Basket

Aurreko egun hauetan San Fausto jai bikainak izan ditugu Durangon, eta eguraldi ona izan dugu.

Ikusle guztientzako programazioa eta jarduerak arrakastatsua izan dira, alde guztietatik, arazo nabarmenik gabe eta jende ugari bilduz, bai durangarrak bai bisitariak, Bizkaiko aurtengo azken jaiak gozatu dituztelarik gure hiribilduan.

Hala ere, oraindik hobetzen joan gaitezke, eta, nire ustez, bi kirol jarduerak daude jaietako programan sar litezkeenak. Biak anbiziotsuak, baina egin daitezkeenak. Bat gure futbol taldearen —Durangoko Kulturalaren— eta

### Bai Kulturala bai Tabirako gure kirolaren bi ikur dira, eta ospe eta tradizio handiko klubak

Athleticen arteko partidua, eta beste bat gure saskibalo talde bikainaren —Tabirakoaren— eta Bilbo Basketen arteko partidua. Edo Real Madril, Bartzelonaren edo ACBko zein Europako talde handi baten aurkakoa.

Bai Kulturala bai Tabirako gure kirolaren bi ikur dira Durangon, eta ospe eta tradizio handiko klubak, eta, horrela, gure jaietako bi jarduerak bultzatzen dizkiegu, zalantzarik gabe durangarrak zein bisitariak gozaraziko dituztenak, eta horregatik, udaletik eta Jai Batzordearen baitan bultzatuko ditugu, bi jarduerak hurrengoetan errealitate izan daitezkeen.

**ESKELAK**

946 816 558 • [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.





# BURUARI KLIK!











# MATEMATIKA



Egin eragiketa haiek beheko intsektuek duten zenbakia kontuan hartuta.

 = 5       = 2

 = 6       = 3


 +  -  =

 -  +  =

 -  x  =

# MARGOTU

Margotu tximeleta beheko koloreekin.



 = 1

 = 2

 = 3

 = 4

 = 5







 = 6

 = 7



# LABIRINTOIA

Labirinto honetan egin bidea intsektuei jarraituta.



# NOR DA?

Deskribapena jarraitu eta topatzen gabiltzan pertsona topatuko duzu.



- 1.- Emakumea da
- 2.- Ez du betaurrekorik
- 3.- Ile luzea dauka
- 4.- Azal kolorea zuria da
- 5.- Ile kolorea beltza da
- 6.- Ile kizkurra dauka






## DIFERENTZIAK

Topatu selfie honetan zazpi diferentziak.

## ASMAKIZUNA

Ordenagailuko pasahitza ahaiztu zaio. Beheko pistak jarraituz asmatzen lagunduko diozu?



- 1.- Bere neba nagusiaren jaiotza urtea da.
- 2.- Bera 1989an jaio zen.
- 3.- Bere ahizpa txikiarekin hiru urteko aldea dauka.
- 4.- Bere ahizpa txikia eta bere nebak zazpi urteko aldea dute.



# Okm:

## *batzen gaituen distantzia*

### **Abantailak**

#### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

#### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

#### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran

#### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

#### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

#### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

#### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

#### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

#### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

#### **LA PERLA**

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan


#### **NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### **HONTZA MUSEOA**

- %50eko deskontua sarreretan





**> anboto**  
**kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

#### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

#### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

#### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***





## 'Emozio festa'

ANTZERKIA ELORRIO :: Urriak 22

### Dantzatzera eta gozatzera gonbita, Ene Kantak taldearen eskutik

Eskolako lehenengo eguna oinarri hartuta, musikaz, dantzaz eta irriz beteriko abentura berri batean murgilduko dira Eneko eta Nerea. Honako honetan, Ene Kantak taldeko lagunek eszenatokia ikasgela bihurtuko dute eta pasarte dibertigarri eta dantzagarriak biziko dituzte bertan.

Eskolako lehenengo egunean urduri daude denak: gurasoak, irakasleak eta, zelan ez, gure la-

gun biak: Eneko eta Nerea. Askok ez dakite egoera horretan sortzen diren emozioak kudeatzen: beldurra, urduritasuna, poztasuna... Hala ere, emozio hauek guztiak beharrezkoak dira bizitzan, eta horiek zelan kudeatu erakusten ahaleginduko dira, domekan, Arriola antzokian. Ikuskizunak gozatzera, dantzatzera eta irri egitera gonbidatu gura du ikuslea. 17:00etan hasiko da.

### Urriaren 20an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Andereño' (Anita Maravillas)**, 17:00etan, Kultur Etxean.

**ELORRIO antzerkia**  
**'El rey tuerto' (Inextremis Teatro konpainia)**, 20:00etan, Arriola antzokian.

**IZURTZA ipuinak**  
**Ipuinak eta txotxongiloak (Izaskun Mujika)**, 17:30ean, erabilera anitzeko aretoan. Bost urtetik gorako umeentzat.

**IURRETA erakusketa**  
**'Emakumeak, Zientzia eta Teknologian' erakusketa**, Ibarretxe kultur etxean.

**MALLABIA erakusketa**  
**Ondarearen Jardunaldiak: 'Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuak' erakusketa**, 17:00etatik 20:00etara, Kontzejuzarrear.

**MALLABIA urteurrena**  
**Learreta-Markina eskolaren 50. urteurren jaiak. Bertsio kontzertua**, 19:00etan, parkean.

**ZORNOTZA euskal jaiak**  
**Txupina eta triki kalejira**, 19:30ean, Pike plazan.  
**Errromeria Zutik taldeagaz**, 21:00etan, Zelaieta parkean.

### Urriaren 21ean

**DURANGO txapelketa**  
**Bizkaiko Xake Txapelketa**, 16:30ean, Landako eskolako frontoian.

**IURRETA berbaldia**  
**Ondarearen Jardunaldiak: 'Kanpaiak eta esanahiak' berbaldia eta proiektzioa**, 17:00etan, Iurretako plazan.

**MALLABIA urteurrena**  
**Learreta-Markina eskolaren 50. urteurren jaiak. Dantza, bertsoak eta argazki erakusketa**, 11:00etan, eskolan.  
**Trikitilarien kalejira parkera**, 13:00etan. Eskolako abestiaren aurkezpena.

**Bazkaria**, 15:00etan, frontoian.  
**DJ Xaibor**, 19:00etan, parkean.

**MAÑARIA Santa Ursula Puro Relajo**, 19:00etan, frontoian.

**ZORNOTZA Euskal Jaiak**  
**Diana eta kalejira txistulari, gaitero eta erraldoiekin**, 11:30ean.  
**Ikastetxeak dantzan eta kantuz**, 12:30ean.  
**Musika, kantua eta dantza**, 13:15ean, herritik zehar.  
**Talde kalejira**, 14:45ean, Herriko plazatik Zelaieta parkera.

**Txalaparta**, 15:00etan, Zelaieta parkean.

**Herri bazkaria**, 15:15ean, Zelaieta parkean.

**Bertsolariak**, 17:00etan, Zelaieta parkean.

**Kantaldia**, 17:45ean.  
**'Iparragirre omenduz': Gontzal Mendibil, Zornotzako musika bandagaz eta Zornotzako abesbatzagaz batera**, 22:00etan, frontoian.

### Urriaren 22an

**ATXONDO masterclassa**  
**Parkour masterclassa**, 10:30ean, Parkourgunean.  
**Saio bi izango dira**, 10:30etik 12:00etara eta 12:00etatik 13:30era.

**MALLABIA berbaldia**  
**Ondarearen Jardunaldiak: 'Lehenengo lanbide zaharrak gogoan' berbaldia (Hizlaria: Jesus Eguzkitza 'Eguzki')**, 12:30ean, Elizalde plazan.

### Urriaren 26an

**ZORNOTZA dokumentala**  
**Ondarearen Jardunaldiak: Bizkargiko eguna. Atzotik gaurkora dokumentala**, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Ondoren, mahai-ingurua.

### Urriaren 27an

**ABADIÑO urteurrena**  
**'Berpizkunde Asteburua. 25 urte Abaño zertzen'**.

**'Miseriaren adarrak' bertso saioa (EKIDA)**, 20:00etan, Gaztetxean.

**IURRETA ipuinak**  
**'Kandelaren argitan kontatzeko ipuinak', Izaskun Mujika ipuin kontalariaren eskutik**, herri bibliotekan: 17:00etan, 3-5 urteko umeentzat. 17:45ean, sei urtetik gorakoentzat.

**IURRETA narrazioa**  
**'Peligrosas' helduentzako ipuin kontaketa, (Virginia Imaz)**, 19:00etan, bibliotekan.

**MALLABIA Urriko Jaiak**  
**Buruhandiak**, 16:30ean, eskolatik parkera.

**Txondor Herri kirol taldearen erakustaldia**, 17:00etan, parkean.  
**Etxebarría aita- seme trikitilariak**, 18:00etan.  
**Kickboxing boxeo gaua**, 18:30ean, frontoian.  
**Txupinazoa**, 18:30ean, udaletxeko balkoitik.  
**Elizpeko pilota txapelketako finala**, 19:00etan.

**Hanburgesa pintxoak**, 20:30ean, parkean.  
**Aiama + Akerbeltz**, 21:30ean, parkean.

### Urriaren 31ra arte

**MAÑARIA erakusketa**  
**'Kabi eta Arrautzak'**, Hontza Museoan.

## Zinema

**:: Abadiño**  
**ERROTA KULTUR ETXEA**  
• **Bilboko Film Sozialak.**  
**Zinema Ikusiezinenaren Jaialdia**  
barikua 20: 19:00  
zapatua 21: 19:00

**:: Berriz**  
**KULTUR ETXEA**

• **La voz del sol**  
barikua 20: 19:30  
domeka 22: 19:00

**:: Durango**  
**ZUGAZA ZINEMA**

• **Los asesinos de la luna**  
barikua 20: 19:00  
zapatua 21: 19:00  
domeka 22: 17:9:00  
astelehena 23: 18:00  
martitzena 24: 18:00  
eguzartena 25: 19:00

• **Sound of freedom**  
barikua 20: 18:30 / 21:00  
zapatua 21: 18:00 / 20:30  
domeka 22: 17:00 / 19:30  
astelehena 23: 17:45 / 20:15  
martitzena 24: 17:45 / 20:15  
eguzartena 25: 19:00

• **Mi otro Jon**  
barikua 20: 18:30 / 21:00  
zapatua 21: 18:00 / 20:30  
domeka 22: 17:00 / 19:30  
astelehena 23: 17:45 / 20:15  
martitzena 24: 17:45 / 20:15

• **La patrulla canina. La superpelícula**  
zapatua 21: 16:45  
domeka 22: 16:45

• **Carmen. Arena de Verona (opera)**  
eguzartena 25: 19:00

**:: Elorrio**  
**ARRIOLA ANTZOKIA**

• **Passages**  
zapatua 21: 20:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:00

**:: Zornotza**  
**ZORNOTZA ARETOA**

• **Chinas**  
barikua 20: 20:00  
zapatua 21: 20:00  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:15

• **El Osito Boom**  
zapatua 21: 17:00  
domeka 22: 17:00



## San Faustoak 2023

### Urriak 20, barikua

#### 17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak

Ibaizabal parkean. Simulazioa 19:00etan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

#### 18:00 'Terrazeo' girotua Txosnagunean

#### 19:00 Elektrotxufla elektrotzaranga Alde Zaharretik

19:00 Tortilla txapelketa Txosnagunean. 20:30 sari banaketa

20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie eta Izar Gaztea

20:00 'Boca Beats' komedia Andra Mariko elizpean

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

22:00 Nakar, Toc eta Biznaga Txosnagunean

22:30 Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: **Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Gorka Pagonabarraga eta Eneko Abasolo 'Abarkas'**. Gai jartzailea: **Unai Iturriaga**. (Gonbidapenak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 10etik aurrera eta leku guztiak bete arte)

23:00 Huntza taldea Ezkurdin

### Urriak 21, zapatua (Mozorro Eguna)

7:00 Diana Jaizale txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 - 14:00 Haur tailerrak ASEBIER elkartearen eskutik Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri-Txiri taldearen eskutik

12:00 Patata tortillaren XIV. txapelketa Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/16 urtetik gorakoak. Izen ematea eta informazioa: Intxaurren 26tik aurrera, plazak bete arte

12:30 Xaibor disko-festa haurrentzat Ezkurdin

13:15 Bilbainadak Andra Marian: Gaupasa

13:00 Elkartasun bermut musikatua. KSKA kolektiboaren musikak girotuta. Bitartean, elkartasun mozorro argazkiak Txosnagunean

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean)

17:00 Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz Madalenatik

18:30 Zirkua eta antzerkia Aurora Abasolo parkean Proyecto Kavauriren eskutik, 'Lullaby' ikuskizunagaz. (Euria bada, Kurutziaga Ikastolan)

18:30 Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Ibaizabal parkeraino. Amaieran sari zozketa. Izen ematea: urriaren 2tik 19ra Intxaurren.

18:30 Astronomia eskulan tailerrak: suziriak, eskornagots... Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea. (Euria bada, ez da egingo)

20:00 Karaokea Goazen-egaz Ibaizabal parkean

21:00 Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea. (Euria bada, ez da egingo)

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

22:00 Sound System. Airaladeko soinu sistema

23:00 Vulkano orkestra Ezkurdin

00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa.

### Urriak 22, domeka

7:00 Diana Jaizale txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

10:30 Nesken eta mutilen San Fausto XI. Padel txapelketaren finalak Landako Kiroldagian. Antolatzailea: Padel zaleak

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean)

12:00 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du J.M. Barandiaran egoitzan

12:00 Txiki Txef tailerrak Tabira auzoan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Poneyak eta zaldia Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo)

12:00 - 14:00 Arku-tirorako gunea Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean)

12:30 Herri Kirolak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta (Euskal Herriko Txapelduna), Alex Txikon, Goizeder Beltza, Bihurri, Karmele Gisasola (Euskal Herriko Txapelduna), Nerea Egurrola (Euskal Herriko Txapelduna) eta Carlos Aretxabaleta. (Euria bada, Landako Gunean)

13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz Plateruena Kultur Aterpean

16:00 Arku-tiro txapelketa Landako Gunean. Antolatzailea: Durangoko arkulariak

17:00 Dantza modernoa, garaikide eta urbanoa L'Atelier Dantza Eskolaren eskutik Ezkurdin

18:00 Boleros 4 taldea Andra Mariko elizpean

18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik

19:30 Patxikotxuri eta jaietako esateko, udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino

20:00 Jaien amaiera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan

### Urriak 27, barikua

20:00 Hitzaldi ikusgarria, udaletxe plazan. Margolan musikalak udaletxeko fatxadan. Antolatzailea: Gerediaga Elkartea. (Hizkuntza: gaztelania)

### Urriak 28, zapatua

16:30 Umeentzako atletismoa Ezkurdi plazan: jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, ginkana). Izen ematea: durangokiroltaldea@gmail.com Antolatzailea: Durango Kirol Taldea. (Euria bada, Landako Gunean)

20:00 Durango Txistu Kontzertua 2023 Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkartea.

### Urriak 29, domeka (54. Umeen Euskal Jaia)

12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan. (Euria bada, Landako Gunean). Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.

18:00 Herri Maite taldearen akordeoi kontzertua San Frantzisko elizan.



# “Klase kontzientzia eduki behar da, baina pozik ere bizi behar dugu”

Biznaga talde madrildarrak kontzertua joko du barikuan Durangoko txosnagunean, Nakar eta TOC taldeekin batera

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

**'Bremen no existe' laugarren lana aurkezteko, Biznaga madrildarrak kilometroak pilatzen ari dira. ANBOTOK Milky bateria joleagaz berba egin du.**

**Urtebete igaro da azken lanetik. Zer ikusten duzue atzera begiratuta?**

*Bremen no existe* albumagaz taldea asko hazi da. Gehiago deitzen digute, leku gehiagotatik, eta leku horietan jende gehiago batzen dugu, kontzertuak dohainik zein ordainduta badira ere. Jende askok esan dit, azpikultura desberdinetako jendeak, diskoa gustatu egin zaiela. Beti izan dugu lotura punkagaz, baina orain artean asko ez dira gure zaleak izan. Urte osoa daramagu zuzenean aurkezten, gelditu barik. **'Sentido del espectáculo'** lana Euskal Herrian grabatu zenuten bere garaian, eta ordutik hainbat bider etorri zarete kontzertuak ematera. Gustuko duzue hona etortzea?

Euskadiren DNA musikalean doa rocka, gitarren musika. Eta bai, asko deitu digute hemendik ere. Senideek esaten didate: *Zer, berririo iparralderutz?* Bestalde, bertako baldintzak itzelak izaten dira, izan jai herrikoiak, izan jaialdi bat. Askotan deitzen digute, eta suposatzen dut gustuko gaituztelako izango dela, edo ez garelako oso garestiak (barrez).

**Zuen ibilbideko momenturik gozoe-  
nean zaudete?**

Bai. Baina beste edozein momentutan ere berdina erantzungo nizuke, pandemian ezik. Gure hazkundera oso naturala izan da; lan bakoitzagaz, jarraitzaileak eta ikusgarritasuna irabazi ditugu. Eta beti modu independentean, gure airera. Otsailean estudiora sartuko gara lan berria izango dena grabatzera. Lasaiago hartu izan dugu normalean, urte biko tartea hartu izan dugu diskoen artean, baina hori momentu onaren erakusleerikoa bat da. Asko jotzen ari gara zuzenean, eta, gainera, grabatzeko eta konposatzeko tartea hartu dezakegu, eta lehen ezin genuen egin hori, beste lan batzuk ere bagenituelako.

**Durangon jaiak ospatzen ari dira, baina badirudi mundua pikutara doala. Dantzatu daiteke haserre egonda ere?** Aldarrikatu egin behar da, eta ondo pasatu. Klase kontzientzia eduki behar da, konprometituta egon behar dugu, baina pozik bizi behar dugu, eta jendea zaindu egin behar dugu. Ezin gara haserre eta amorratuta egotera mugatu; pozik eta itxaropentsu egotea beharrezkoa da. Nik horrela ikusten ditut gauzak, eta disko honetako berba eta doinueta ere antzeman daiteke hori. *Madrid nos pertenece* abestian ikusten da hori, adibidez: bakarrik



**Ezin gara haserre eta amorratuta bizitzera mugatu; pozik eta itxaropentsu egotea ere beharrezkoa da; Madril kaka zaharra da, baina gurea ere bada**

ezin duzu, baina lagunekin bai. Madril disputan dago; Madril kaka zaharra da, baina gurea ere bada. Garrantzitsua da alde sinbolikoan

aldarrikatzea, baina baita benetakoan ere; izan daitezke irabazitako espazioak, edo martxan ipintzen diren proiektuak. Mugitzea dagokigu, eta kito. Filosofia hori dugu, bai taldean, baita pertsonalki ere. **'Madrid nos pertenece'** abestia, adibidez, Madriletik harago doa. Guztiz. Aitortzen dut hasieran dudak genituela ea zelan hartuko zen Euskal Herrian edo Katalunian, baina letra inteligentea da, eta entzuleak ere bai. Txantxa artean esan izan digute ez digutela Madril dioen kamisetarik erosi-

ko, baina berbak ondo planteatuta daude, eta Madril horregaz soilik geratzea edo Madril jende batentzat suposatzen duenagaz geratzea, baita niretzat ere, akats bat da; Madrilgo auzoak disputan daude, gentrifikazioagatik eta arrazismoagatik adibidez, beste leku askotan lez, eta, beraz, gutxienekoa da Madril aipatzea abesti horretan. Hortaz, galdeztzen didatenean beti erantzuten dut entzuleek arnasa betean abesten dutela Euskal Herrian eta Katalunian ere.

## Zornotzako Bandak artea eta denbora batzen dituen 'Bitartean artea tartea' aurkeztu du

Ohiko emanaldiez gainera, Zornotza Musika Bandak bost kontzertu berezi emango ditu denboraldi berrian

MUSIKA • A.M.

Zornotzako Musika Bandak 'Bitartean artea tarteko' denboraldi berria aurkeztu du asteon. Herriko jaietan, Santa Zezilia zaindarien egunean eta inauterietan ematen dituen kontzertuez gainera, denboraldi honetan beste bost emanaldi berezi egingo ditu; arteak eta denborak bat egingo dute denboraldi osoan zehar. Lehenengo kontzertua zapatu honetan bertan izango da, Euskal Jaiaren barruan. *Iparragirre: 200 urte tarte-*

*ko* izenburupean, Gontzal Mendibilek eta Zornotzako Abesbatzak lagunduko diote Musika Bandari. "Artea espazioa eta debora ulertzeko baliagarria dela erakutsi gura dugu, bai banda legez emango ditugun kontzertuetan, baita gonbidatu bereziekin ere: mendeurrenak, omenaldiak, eta herritarren kolaborazioak bezalako gaiak jorratuko ditugu", azaldu du Aritz Labrador Zornotzako Musika Bandako zuzendariak. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Bigarren

kontzertua abenduan izango da, Bitartean folk taldeagaz; hirugarrena udaberrian izango da, Luis González Garrido saxofonistaren laguntzagaz; laugarrenean rockera hurbilduko da banda, Eztandap taldeagaz; amaitzeko, Zornotzako jaietan Bilboko Koral elkarteagaz eta Abes Kimu koralagaz batera arituko da.

Ainhoa Salterain alkateak bandaren eta Labradorren lana azpimarratu ditu aurkezpenean: "Zornotzan inork ere ez du zalantzan ipintzen bere ibilbidea, eta ezta aurretik duten etorkizun oparoa ere".



Ainhoa Salterain, Aritz Labrador eta Koldo Bilbao.





Iruri Altzerreka Arrigorriagako kanporaketan, mikrofonoaren aurrean.

## Sarriugartek eta Galarzak Erandioko kanporaketan kantatuko dute

Iruri Altzerreka garaitarra finalurrekoetarako sailkatu da Arrigorriagan, 475 puntugaz

### BERTSOLARITZA • A. M.

Domekan, urriak 22, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako laugarren kanporaketa jokatu da; saioa 17:00etan izango da, Erandioko Merkatu Zaharrean. Bertan, Ander Sarriugarte durangarrak eta Igor Galarza abadiñarrak kantatuko dute; eurekin batera, Garazi Navarro, Imanol Uria, Paule Ixiar Loizaga eta Unai Mendiburu arituko dira bertsotan. Saioko irabazlea zuzenean sailkatuko da Santurtziko finalurrekoan kantatzeko. Gainerakoek puntuazioaren arabera izango dute horretarako aukera.

Behin Erandiokoa igarota, kanporaketa bakarra geratu da finalurrekoetan arituko diren hamazortzi bertsolariak nortzuk izango diren jakiteko. Lekeition izango da azken kanporaketa hori, azaroaren 1ean, eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak kantatuko du bertan. Saio guztietarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude salgai.

### Zuzenean Berrizkora

Bestalde, Arrigorriagako kanporaketa irabazita, Iruri Altzerreka garaitarra zuzenean sailkatu da Berrizko finalurrekorako; 475

puntugaz irabazi zuen saioa. Josune Aramendi geratu zen bigarren (470 puntu), Lurdes Ondaro hirugarren (453 puntu), eta Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak laugarren amaitu zuen (441 puntu). Inazio Vidal (436,5) eta Iker Uriarte (431) izan ziren beste bertsolari biak. Berrizko kanporaketa azaroaren 11n izango da, Olakueta frontoian, eta Altzerrek ez ezik Gorka Pagonabarraga durangarrak ere kantatuko du bertan. Pagonabarraga azken txapelketan finalean aritu zelako sailkatu da zuzenean finalerdietarako.

## Durangoko Azokak DA! PRO topaketa antolatu du

Sortzaileen, profesionalen eta programatzaileen arteko lankidetzak ekimena azaroaren 28an eta 29an egingo dute

### DURANGOKO AZOKA • A. M.

Aurreko urteetako ibilbide opa-roari jarraipena emanez, Durangoko Azokak DA! PRO topaketaren bosgarren edizioa antolatu du. Azaroaren 28an eta 29an izango da topaketa, sortzaileen, profesionalen eta programatzaileen artean lankidetzak sustatzeko; sortzaileek sektoreko profesionalen aurrean erakutsi ahal izango dituzte euren lanak; bertan parte hartzeko inskripzioa martxan da, [www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus) webgunean (sortzaileek urriaren 31ra arteko epea dute izena

emateko, eta programatzaileek azaroaren 27ra artekoa). Azaroaren 28an familia ikuskizunen proposamenak plazaratuko dituzte, Bizenta Mogel bibliotekan; 29an musikarien txanda izango da, Plateruena kultur aterpean. Topaketan aurkeztuko diren sortzaileen lanak katalogoetan jasoko dira, eta katalogo horiek teknikari eta programatzaileen eskura jarriko dira, urtean zehar kontratazioak egiteko. Horrez gainera, Zornotzako Udalak MusikaGaz Fest jaialdia antolatuko du urtarrilerako.



DA! PRO topaketaren aurkezpena.

## Gai librean

### Sarraskia

Lanera bidean irratian entzun dut zailtzak direla ea nor bota duen misila, nor bombardatu duen Gazako ospitalea iragan iluntzean. Ehunka hildako eragin dituen sarraskia. Hamaika kontu esan ditu Israeliek: Jihad Islamikoa izan dela, Hamasi ere egotzi dio egindakoa, esan du aparkalekua bakarrik izan dela bombardatua eta abar, eta abar. Batek daki lerro hauek idazten nabilen bitartean zer esan eta zer gerta daitekeen gatazka honetan. Bidean berak, gertakaria izan eta gutxira Israelera iritsita, hala iradoki du hauen bertsioa hobetsiz "ematen du eraso beste bandoak egin duela".

Hamasek biolentzia aitzakia hartuta altxa da Israel bere herriaren defentsan eta badirudi justifikatuta duela egiten ari den guztia. Eta horrela, beste



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

### Europako gobernuek denerik egin dute Palestinarekiko elkartasun keinuak debekatu eta ezabatzeko

behin, Mendebaldetik palestinarrek terroristak.

Biralizatu egin da iazko urrian Ursula Von der Leyenek, Europako Batzordeko presidentea, Errusiak Ukrainari egingako erasoari buruz esandakoak: "Nagua hurbiltzen ari den honetan, gizon, emakume eta hurrei ura, elektrizitatea eta berogailua moztea helburu duten egitura zibilei eginiko erasoak izu-ekin-tza hutsak dira". Entzun al diegu hauei Ukrainan bezala gerra-krimenez hitz egiten? Noiz arte Mendebaldearen zirikeria sarraski honen aurrean? Badakigu, palestinarrek ez dute tratatu bera jasoko.

Europako gobernuek denerik egin dute Palestinarekiko elkartasun keinuak

debekatu eta ezabatzeko. Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuek Palestinaren aldeko manifestazioak debekatu dituzte. Gure herrialdean, besteak beste, Ipuruan Palestinaren bandera atera zuen zale bat kaleratu dute. Eta ez da ezer gertatzen.

Gerra bat dagoela esan digute. Baina gertatzen ari den hau gerra hutsa baino askoz gehiago da. Israelgo Gobernuak Palestina eta palestinar oro desagerrarazi nahi ditu. Hil. Garbiketa etnikoa. Anikilazioa. Genozidioa. Eta ez da duela bi aste hasitako kontua. Gutxienez 75 urte daramatzen zapalkuntza da. Jasanezina da. Euskal Herriak jakin izan du Palestinari elkartasuna erakusten eta oraingoan ere ez du ez ikusiarena egingo. Badago aukera hiri, herri eta auzoetan egiten dabilzan deialdietan kaleak hartzeko. Tartean, Donostian zaturako deitu duten manifestazio nazionalen.



# “Urpean mundu berri bat ezagutu dut; kirol arriskutsua da, baina gehiago da ematen didana”

Imanol Agirrek brontzezko domina irabazi du oraintsu Espainiako txapelketan, taldeka. Lander Aurrekoetxea bermeotarragaz eta Jon Kepa Jauregi gernikarragaz osatu du taldea. Hirurak Izaro Sub klubeko kideak dira.

**URPEKO ARRANTZA • JOSEBA DERTEANO**  
Badaki zaletasun arriskutsua dena, baina urpean bizi duenak arriskua konpentsatzen ei dio. Urpeko arrantzak momentu "magikoak" eman dizkio, eta hamabi kiloko piezak ere harrapatu izan ditu. Inoiz marrazoren bat ere izan du aurrez aurre.

**Zelan zaletu zinen urpeko arrantzara?**

Txikitan kainaberagaz arrantza egitera joaten nintzen aitagaz. Orduan hasi nintzen itsasoaren mundua ezagutzen. Gero, 15 bat urtegaraz, lagun batzuk urpeko arrantza egiten ikusi nituen eta deigarri gertatu zitzaidan. Apurka ikasten joan nintzen. Autodidakta izan naiz beti. Hiru bat urte daramatzat txapelketen munduan. Lehiatzeko grinagaitik baino gehiago, ikasteko nahiagaz joaten naiz.

**Oraingoan, ikasi ez ezik, brontzezko domina ere irabazi duzu.**

Ezusteko pozgarria izan da! Onen-tan onenak lehiatu ziren eta guk baino baliabide gehiago zituzten. Han aritzeagaz bakarrik pozik nengoen, azkenengo geratuta ere; beraz, imajinatu brontzezko domina irabazita! Hamar bat pieza harrapatu genituen. Nire piezarik politena kilo eta erdiko muxar handi bat izan zen.

**Euskal Herrian zein tokitan duzu gustuko urpeko arrantza egitea?**

Urdaibai ingurua oso polita eta egokia da. Lekeition, Ondarroan, Gipuzkoa aldean... ibiltzen gara.

**Toki horietako zirrikitu guztiak ezagunak dira ala onddotan ibiltzen direnen antzera sekretuak diren guneak ere badaude?**

(Barrez). Bietarik dago. Badaude arroka konkretu batzuk, ordu jakin batzuk...

**Zein da inoiz harrapatu duzun arrainik handiena?**

Orain urte asko hamabi kiloko itsas zapoa harrapatu nuen eta aurten marka hori berdindu dut: hamabi

**Hamabi kiloko meroa arrantzatzea oso nekagarria izan zen. Hiru ordu laurden joango ziren barkura igo genuenerako**

kiloko meroa arrantzatu dut Gibraltarko itsasartean.

**Itsas zapoa non harrapatu zenuen?**

Esan dezagun... Bermeo aldetik (barrez).

**Onddozaleen pare!**

Berdinak gara! Sarritan esaten didate: "Lasai, ez naiz hara joango arrantza egitera". Baina sekula ez da jakiten. Beti dago senitartekoren bat, lagun bat...



**Imanol Agirre Sarabia**

Urpeko arrantza

DURANGO | 1994

**Horrelako arrain handiak mendean hartzea ez da erraza izango.**

Meroa hoge metroko sakoneran zegoen. Apnea egiten, oxigenorik barik... Oso nekagarria izan zen. Lehenengo tirotik barkura igo genuen arte hiru ordu laurden igaroko ziren.

**Zein arrain arrantzatzea gustatuko litzaizuke?**

Denok ditugu espezie fetitxeak. Nik bi ditut: burbina eta limoi arraina. Ez ditut askotan ikusi.

**Kirol arriskutsua dela diote. Horrela da?**

Bai. Nonbait irakurri dut hildakorik gehien kirol honetan izaten dela. Lagunekin joanda ere, bata bestearen<sup>o</sup>gandik aldentuta egoten garenez, sinkope bat izaten baduzu ez dago inguruan behera lagunduko dizun inor.

**24 metroko sakoneran nengoela, hiru ilargi-arrain ikusi nituen. Ni geldi-geldi, eta eurak nire inguruan. Momentu magikoa izan zen"**

**Horrek ez zaitu beldurtzen?**

Lagunen bat ere joan zaigu urpeko arrantzan zebilela... Batzuetan beldur apur bat ematen dizu, bai, baina ematen diguna gehiago da. Urpean mundu berri bat ezagutu dut eta barru-barrutik bizi dut.

**Teknologiak arriskua murrizten laguntzen du?**

Bai. Buzeoko ordenagailua deitzen diogunak berriro urperatu aurretik gainazalean eman beharreko denbora kalkulatzeko digu. 15 metrotik aurrera, urpean

emaniko denboraren hirukoitza eman behar duzu gainazalean. Esaterako, minutu bian 20 metrora ibili banaiz sei minutu joan behar dira berriro urperatu aurretik.

**Urpean zenbat denbora eman dezakezu arnasarik hartu barik?**

Geldirik nagoela, 4 minutu eta hamar segundo, eta mugimenduan, minutu bi eta 30 bat segundo.

**Zein da urpean bizi izan duzun unerik bereziena?**

Behin, 24 metroko sakoneran nengoela, hiru ilargi-arrain ikusi nituen. Ni geldi-geldi, eta eurak nire inguruan astiro-astiro mugitzen. Momentu magikoa izan zen. Inoiz egokitu zaizu urpean harrapakaria barik harrapakina izatea?

Ba, bai, aurten bertan, Cadizen. Ura oso zikin zegoen eta bat-batean metro eta erdiko gelba bat ikusi nuen, marrazo mota bat. Berez ez dira erasokorrak, mantsoak dira. Sustoa gehiago izan zen ur zikinetik bat-batean agertu zelako, marrazoak berak duen arriskuagaitik baino.

**Aurrera begira, zeintzuk helburu dituzu?**

Etorkizunean, Europatik kanpora joatea gustatuko litzaidake. Azpiegitura handia behar da, baina etorriko da hori ere.



Imanol Agirre, aurten arrantzatu duen hamabi kiloko mero zuriagaz.



# Hirugarren urtez segidan urrezko zigiluari eusten dion Zornotzako Nazioarteko Krosa domeka honetan lehiatuko dute

Europako araudira egokituz, emakumeek eta gizonek maila guztietan distantzia bera egingo dutela da 69. aldi honetako nobedade nagusia



Emakumeen krosa 12:15ean hasiko da, Jauregibarriako landetan.

## KROSA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Krosak 69. aldia egingo du domeka goizean, Jauregibarriako landetan. Hirugarren urtez jarraian urrezko zigiluari eusten dio, nazioarteko izendapen gorenari. Aurtengo berrikuntza nagusia da emakumeek egin beharreko dis-

tantzia gizonenera parekatu dutela maila guztietan. Esaterako, maila absolutuko distantzia 8.700 metro izango da korrikalari guztientzat. Pistan urte asko dira distantziak parekatu zituztenetik, baina krosetan prozesua azken urteetan gertatzen ari da. Munduko kros txapelketan

edizio batzuk daramatzate distantzia beragaz. Europako federazioa baino ez zen falta pausoa emateko, eta aurtun emango dute. Abenduan Bruselan (Belgika) egingo den txapelketan berdinduko dituzte lehenengoz distantziak, eta, horren ondorioz, urrats bera ematen ari

dira Europako federazioko egutegian dauden kros guztiak; tartean, Zornotzako.

## Faboritoak

Emakumeetan Lucy Mawia kenyarra eta Likina Amebaw etiopiarra dira faborito nagusiak, munduko

cross-country tourreko txapelduna eta 2022ko klubaren arteko Europako txapelketako txapelduna, hurrenez hurren. Atletak euskaldunen artean, bi nabarmendu dituzte antolatzaileek. Alde batetik, F.C. Barcelona klubean dabilen June Arbeo durangarra. Pistako oztopo probak dira bere espezialitatea, eta pistako modalitate horretan dabilzanak "oso ondo" egokitzen dira krosetan, Zornotza Kirol Elkartearen Juan Jose Anderezen esanetan. Bestetik, Iraia Mendia lazkaotarrak ere zeresana eman dezake. Iaz hamar onenen artean geratu zen 20 urtez azpiko Europako kros txapelketan.

Gizonetan Celestin Ndikumana burundiarra eta Noah Schutte herbeheretarra nabarmendu daitezke. Biak 30 onenen artean sailkatu dira aurtengo munduko kros txapelketan. Eurekin batera, munduko txapelketako 3.000 metroko oztopodun proban finalista izan den Leonard Chemutai ugandarra ere faboritoen artean dago. Iaz Sevilako maratonia hirugarren amaitu zuen Marhawi Ghebreslassiegar batera.

Lehenengo lasterketak, 14 urtez azpikoak, 09:40an hasiko dira. Herri lasterketari 11:40an ekingo diote eta segidan maila absolutuko biak hasiko dira: emakumeena 12:15ean, eta gizonena 13:00etan.

## Jokaldia

### Gantxo eta garrasi

Gaur ere, egunero legez, erlojuak goizeko hamaikak jo dituenen, korrika bizian irten da 11-12 urte inguruko ikasle kuadrilla, ikastolako Haur Hezkuntzako atarian dagoen horma zurian esku-pilotan jolastera. Iristearekin batera Laso izan nahi duela erabaki du batek; Altuna izateko hautua egin du bigarrenak; hirugarrena Imaz izango da; eta Ezkurdiak, Elordik eta Zabaletak osatuko dute gaurko jaialdia. Bazter honetako hormak ere, asteburuetan telebistaz ikusi ohi dituzten frontoietako bat izatera pasatu dira lehenengo primia lehiatzen hasterako.

Hasi eta berehala, dejadaz egin du lehenengo tantoa Zabaletak. Frontoiko 3.000 ikusleei begira jarri, ukabilak indarrez itxi eta garrasi batekin ospa-



Iñaki Iza Zarazua  
Pilotari ohia

### Idoloen jarrera eta imintzio den-denak imitatzen saiatzen dira pilotari gazteak; Gantxoak eta garrasiak

tu du lorpena. Bigarren tantoa modu berean egin du pilotari berberak; oraingoan, ordea, lurrera begira oihu ozen eginez hustu du barrena. Hurrengo tantoa huts batekin erabaki da eta amorrutza utzi du kantxa Imaz eliminatutako berriak, bidean gomazko eskumuturrekoa kendu eta modu bortitzean lurrera botatzen zuen bitartean; eta, nola ez, ernegua txilio batekin jantzi du honek ere. Bukatzeko, lehenengo primia irabazi osteko Elordiren ospakizuna nekez bereizi ahalko nuke hutsik handiena egin osteko etsipen keinuetatik.

Lanagatik alde egin behar izan dut orduan, pilotariak keinu eta garrasi artean utzita.

Normala den moduan, idoloen jarrera eta imintzio den-denak imitatzen saiatzen dira pilotari gazteak. Gantxoak eta garrasiak. Horregatik, askotan pentsatu izan dut puntako pilotariak kontu handiz ibili behar luketela transmititzen dutenarekin. Baina asteburuero jokabide hauek pilotalekuek eramanen dituzte umeei, eta hango harmailetan ere hauen erreplikak ikusi ditzakegu. Izan ere, hantxe ikusi ditzakegu gurasoak seme-alaben jokaldiak sutuki ospatzen zein madarikatzen. Horrelako egoeren aurrean, Aitor Sarriegik 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean botatako bertso baten amaiera etortzen zait gogora: "Eta nolako izango da gure etorkizuna haurrei eskatu ezkeru geuk egiten ez duguna?"







# San Faustoak

## Durango







Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian

Hemen eta online 



## Botikak

**BARIKUA, 20** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 21** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO,  
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

BALENCIAGA,  
ZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 22** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 23** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 24** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 25** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 26** · 09:00-09:00

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak


ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zozt egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Zorionak hilaren 18an urteak egin dituen Matienako auzokide zoroenari! Espero dugu primeran pasatu izana eta 32 urteez gozatzea!



Aurten ere jai giroan ospatu dogu amama **Piliren** eguna. Zorionak, amama, etxekoan partez eta besarkada handi bat.



**Angel Aniak** eta bere biloba **Lihurrek** urteak egin dituzte urriaren 15ean eta 23an. Zorionak eta mosu handi bat bioi familiaren partez! Asko maite zaituztegu!



Zorionak, mutillek! Hurrengo 10 urteik be oin arteko modokuek izen daitteza. Maitte zaittuegu!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 9° / 18° ☁

ASTELEHENA ↓ 13° / 20° ☁

EGUAZTENA ↓ 11° / 18° ☁

DOMEKA ↓ 9° / 19° ☁

MARTITZENA ↓ 10° / 16° ☁

EGUENA ↓ 13° / 20° ☁

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**Betikoak**  
flexografia

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

PREMIER  
EKOSCAN  
EKO



# "Munduko txapelketara heltze hutsa garaipen bat da niretzat"

Fabio Raris urriaren 6tik 10era Korean jokatu den droneen munduko txapelketan lehiatu da; 115 parte hartzailearen artean 22. geratzea lortu du Durangon bizi den galiziarrak



**Fabio Raris Blanco**

Drone gidaria

GALIZIA | 1994

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

Espainiako Opena irabazi eta Galizian jokaturiko World Drone Cup-ean bigarren geratu ondoren, Fabio Rarisek Koreako droneen munduko txapelketan parte hartzeko aukera lortu zuen. Frantziako World Drone Cup-ean egindako lanak ere lagundu dio.

**Zelako esperientzia izan da Koreakoa?**

Izugarrria! Beste kultura bat, beste mundu bat da Korea, droneei dagokienez ere bai. Joko Olinpikoen antzera bizi dituzte. Kanporatze bikoitzak izan ziren eta lehenengo jardunaldian final-laurdenetara

heltzea lortu nuen. Baina bigarren aukeran galdu egin nuen eta 22. geratu nintzen. Oso pozik nago lorturikoagaz, munduko txapelketara heltze hutsa garaipen bat da niretzat. Txapelketarik txapelketa dabilzanekin lehiatu naiz, 18-20 urteko gazteekin. Horien aurrean ez dago ezer egiterik; 16 urteko gazteren bat ere bazegoen.

**Gaztetasuna erabakiorra da?**

Bai! Askoz ere erreflexu hobekak dituzte; hobeto egiten dute (barrez).

**Noiz hasi zinen droneekin?**

Bost urte dira drone bat lehenengoz hartu nuela, eta hiru urte lehiaketetan nabilela. Hasieran nahikoa

lan nuen dronea jausi ez zedin ahalgintzen (barrez). Gero, freestyle lez hasi nintzen.

**Bost urte dira drone bat lehenengoz hartu nuela, eta hiru urte lehiaketetan nabilela**

**Zer dela-eta hasi zinen?**

Bikotekideak jostailuzko drone bat oparitu zidan Gabonetan. Gustua hartu nion eta Interneten arakatzen hasi nintzen. Ikusminak

bultzatuta, geroago eta gehiago sartu nintzen mundu horretan, eta nire lehenengo dronea eraiki nuen. Guztiz harrapatu nau.

**Zenbat denbora eskaintzen diozu?**

Ahal dudana! Ezin diot gura nukeen beste denbora eskaini. Lana, etxea, bikotekidea, familia, lagunak... dena uztartu behar da. Baina ahal dudana guztietan joaten naiz entrenatzera. Herriguneetatik urrun, droneak ezin direlako edozein lekutan aireratu.

**Mundu ezezaguna da droneena.**

Bai, eta mesfidantza sortzen dute. Drone bati eman ahal zaion erabilera infinitua da. Erabilera ona egin daiteke, edo txarra, baina denean lez. FPV (First Person Viwe) droneak erabiltzen ditugunean, lagun bi joaten gara, edozein arriskuri aurre egiteko.

**Droneekin aritzeari ezin diot gura nukeen beste denbora eskaini. Baina ahal dudana guztietan joaten naiz entrenatzera**

**Zenbat drone dituzu etxean?**

Lehiatzeko 4-5 ditut; eta, horiez gainera, tamaina txikiko bat, estilo librean aritzeko edo grabatzeko beste bat, eta irismen luzeagoko hirugarren bat ere badut.

**Asko galdu dituzu?**

Bat galdu dut, orain dela gutxi, baina lasterketetan ez dira galtzen, leku mugatua delako. Apurtzeko arrisku gehiago dago (hankaren bat, kamera, erradiadorearen bat...).

**Zelako afizioa dago Durangaldean?**

Ez gara asko droneen lasterketetan gabiltzanak. Lanean jarraitzen dugu elkarte bat sortzeko, droneak ezagutarazteko eta horiek aireratzeko aukerak sortzeko.

**Dronea aireratzeko leku bat?**

Kostaldea izugarria da horretarako.

**Munduko txapelketan parte hartu ondoren, zein duzu hurrengo erronka?**

Entrenatzen jarraitzea eta txapelketetara joatea. Eta datorren urtean, aukera sortzen bazait, berriro ere munduko txapelketan parte hartzea.

**Lau-hortza**

Markel Sanchez Zelaia Behargina



**Guztion patua**

Zeri buruz idatzi zutabe bat azken egunetako irudiak ikusita? Zer kontatuko dut hemen inporta duenik? Zer esan herri bat sarraskitzen ari diren bitartean gure agintarien konplizitatearekin?

Badakit mundua hiltegi bat dela, basakeria han-hemen dabilela normaltasun okagarriz, baina goragaleak muga batzuk pasa ditu oraingoan. Lehen isil-gordean egiten zena gaur zuzenean emititzen digute: herri baten genozidioa.

Ikusten gabiltzana ultraeskuinaren proiektu maskara bakoa da, paparra puztuta eta dena irabazteko duenaren harrokeriaz. Israelgo barne ministroa palestinarrei "animalia" deitzen, presidentea bonbardaketan bideoak sareetan hedatzen, ospitaleak sutan. Kapitalismoaren, kolonialismoaren eta arrazakeriaren amets umela. Mundu proiektu bat, finean: sobera dauden pertsonak hiltzen dituen. Israelek sobera ditu palestinar gehienak; eta, kapitalak, hemen zein han, sobera ditu kontsumitzaile eta langile moduan balio ez dutenak, sobera ditu hizkuntza txikiak, sobera gerretatik ihes dabiltzanak, sobera ditu haren kontra borroka egiten dutenak.

Ultraeskuinaren eldarnio horri erantzun irmo eta integral bat eman ezean, nekez sortuko dugu mundu justu bat. Nekez egingo diogu iskin heriotzaren errobera horri, bere ibilian gugana ere etorriko dena azkenean. Elkartasuna zor diegu palestinarrei; Israel gelditu beharra dago ahal dugun baliabide guztiekin, konplizeak salatu behar ditugu, eta, bakearen bidean, Israelgo estatua bera desegin behar da. Eurengeatik, gugatik, denongatik.

Palestinaren patua izango delako gizateriarena.

**SAN ROKE BARRIA DURANGO**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

**225.000€-tik aurrera+BEZ**

Udazkenean obra hasiera

**KALERATZE prezio bereziak**

Zure etxean zaude. Estás en tu casa

**946 46 20 41**

www.sukia.com